

Mahai ingurua:
**Lekuko euskarak eta euskara batua:
elkarren osagarri ala arerio?**

1

Xabier Kintana

HIZKUNTZA BATUA ETA DIALEKTOAK

Euskararen batasunaren auzia ez da atzo goizekoa baina gure literaturaren historia osoan zehar, nola edo hala, gai hau aldizka planteatu den arren, estandarizaziorako lehen pauso serioak, ordea, XX. mendearen hasieran hasi ziren egiten. Hondarribiko bileretan Euskal Herri osorako grafia arauak ezarri nahi izan zirenean. Geroxeago, 1916an, Euskaltzaindia eratu bezain laster, gure Akademiak lan horri heldu zion, Broussain eta Campion euskaltzainen eskutik, praktikan arrakastarik izan ez arren. Haren ondoko beste saio batzuek ere ez zuten zori hobirik izan, Azkueren gipuzkera osotua, Krutwigek bultzaturiko lapurtar klasikoaren berpiztea edota Oskilasok proposatu nahi zuena gogoan harturik.

Nahi hutsa, ordea, ez da nahikoa izaten asmoak aurrera ateratzeko. Askok sentituriko beharizana, horretarako giro egokia eta gutxienezko egoera administratibo laboragarria, hau da, osagai objektiboak, maiz eraginkorragoak izaten dira proiektuen arrakastarako, eta elementu horiek gure artean 60.ko hamarkadaren bukaeran hasi ziren mamitzen, alfabetatze-euskalduntze kanpainen eta ikastolen ugaltzearekin batera. Horren ondorioz zoritu zen Arantzazuko 68ko bilera, Gabriel Arestik proposatua eta K. Mitxelena zuzendaritzapean gaurko euskara batuaren oinarriak ezarri zizkiguna.

Mitxelena baina, ez genuen hizkuntzalari hutsa. Jakituriaz eta herri senaz ongi horniturik egoteaz gainera, euskaldunon herri-psikologiaren ulertzaile bikaina ere bazen. Beti testu idatziaz ez bada ere, hark gauzak esateko eta egiteko modu berezia zeukan, eta euskara batuaren formaz ez eze, proiektua ulertzeko eraz eta bera bideratzeko prozeduraz ere uste baino eredu-jarraipide gehiago utzi zizkigun. Askok euskara batuaren oinarritzko filosofia hori beragandik ikasi genuen, eta ahal izan dugun neurrian hori praktikatzan ahalegindu gara, beti ongi asmatzea erraza izan ez arren.

Errenteriako irakasleak argi ikusi zuen aurreko batasun-proiektuen porrotaren arrazoi nagusietako bat hau izan zela: inguruetako euskaldunek erdiko euskalkiduenengana zuten mesfidantza, hauek maiz nagusikeriaz jokatzen zutelakoan, hots, bere-

na gainerakoei indarka sartu nahian zebiltzalakoan, horrek besteei zekarkien autonomia-galerarekin. Noski, norbaitek, agian hitz gogorregiekin, gipuzkoar inperialismoa deitu izan zuenaz ari naiz. Ongiegi dakit iritzi horrek aski subjektiboa irudi lezakeela, baina kontua da portaera hori besteei horrelaxe ikus-sentitzen zutela beldurrez eta mesfidantzaz.

Errezelo hori, Mitxelena ongi konturatu zenez, are nabarmenagoa zen mendebalean, Bizkaian bereziki. Baziren horretarako arrazoiak ere. Alde batetik, bizkaiera zen, alde handiz, euskararen batasunarekin gehien galdu beharko zuen dialektoa, bere bazter-egoera eta berezitasun urunduagoengatik. Bestetik, beste euskalkiek ez bezala, bizkaierak aldean hitzun kopuru handia dauka, euskara osoaren herena, gutxien jota, eta giza multzo horren pisu soziologikoa ez zen ahanztekoa. Azkenean, gure herrialdeak abertzaleatasunaren historian izandako garrantzia eta Sabino Aranak eta bere jarraitzaile askok dialekto hori nola estimatzen zuten kontuan izanda, espero izatekoa zen mendebaleko euskaldunek euskara batuaz erreparatu ugari izatea, aurreko batasun-saioetan ere agertuak.

Hori zela eta, Mitxelenak ardura handiz jokatu zuen euskara batua alde bateko eta besteko euskaldunen arteko batasunaren adierazle izan zedin, euskalkien arteko oreka, toki guztietako emaitza eta aberastasunen bilgune, proiektu nazional horretan euskaldun guztiok partaide eta eroso senti gintezen, guztion etxe amankomunean. Horrela uler daiteke, adibidez, aditzaren batasunean puntu askotan mendebaldeko eta ekialdeko euskalkien ezaugarri batzuk onartzeko agerturiko jarrera ona, erdialdeko adizkeren osagarri.

Euskara batua, hortaz, goi-nafarrera-gipuzkera-lapurteraren oinarri sendoen gainean mamitu eta eraiki zen, eta, hasieran behintzat, literatur tradizio zaharra bereganatu zuen, iraganeko formak gehienontzat batuagoak zirelakoan. Horrez gainera, inguruko euskalkien aberastasunak, sintaxi, lexiko eta esaeretan, eskuak zabalik onartzen ziren, bai nafar-zuberotarrenak eta baita, mendebaldeko euskaldunenak ere, literatur hizkuntza horretan eskualde guztietako euskaldunak partaide izateko.

Orduan, adibidez, ez zen zalantzan jartzen *haurride*, *itzel* edo *aitzindari* hitzak edo *anaia/neba*, *bertan/beron*, *gatzatu/mami/gaztanbera*, *itzal/itzel*, *hodei/laino*, *egur/zur*, *lur/behe*, *madari/udare*, eta *zer/zertzuk* bikote-hirukoteak euskara batuko hitz bete-beteak eta osa-aberasgarriak zirela, beren esangura bereziarekin guztion euskara zehatzago egiten zutelakoan. Aniztasuna bereganatzen zuten eredu horrek arrakasta eta onespen zabala izan zuen, hasiera hartan toki guztietako euskaldunak onartzeko izan zuten gogo zabala kontuan izanda, eta bereziki Bizkaian, hemengo euskara hartatik urrunduena izan arren. Hori dela eta, une honetan hor-han-hemenka jende batzuk euskalkietara itzuli nahi izateak, oinarrizko desakordioaren sintoma kezagarritzat jo behar dugula uste dut. Eta gaitzespen nabarmenenak bertan, Bizkaialdean, sortu izateak ere, termometro sentibera bihurtzen gaitu mendebaldeko euskaldunok, desbideraketan alarma-seinale, gauzak hain ondo ez doazela erakutsiz.

Izan ere, batasunaren hasieran ez genuen oraindik ordenagailurik eta hortaz, gure literaturako egile garrantzitsuenen eragina idazleok, haiek egiazki irakurriak genituelako, beraiez genuen iritzi subjektibo baina egiazkoan oinarritzen zen, zuzen edo oker, munduko gainerako hizkuntza guztietan gertatu den bezala, derradan bide-nabar. Geroago, informatikaren teknologia heldu zitzaigun, baina mende guztietako autoreen datuak aurkitzeko unean horren laguntza preziagaitza izanik ere, aukera ez da oraingo literaturgileen benetako irakurketa-eraginetan oinarritu, fikzio estatistiko batean baizik. Eta ironikoki, ordenagailuei beita hori ematen diharduten operatzaile

hautatuz landa, inork gutxik irakurri eta seguraski irakurriko ez dituen maila ezberdineko autoreek berez izan ez duten eragina nabarmenki igo da aspaldion, lehenago, batzuen ustez, oreka eta naturaltasun handiagoz bideraturik zeuden hainbat gauza hankaz gora jarritz.

Bestalde, autonomia lortu ondoren euskara irakaskuntza eta komunikabideetara ofizialki iragan zenetik, 1968an Arantzazun Xarrittonek azalduriko kezka hura, neurri handiz, bete egin da. Gipuzkoar peto-peto eta kimikoki hutsen –erran nahi baita, gainerako euskalkien berri izan (nahi) gabeen– eragina gero eta ageriagoa da: *bai baino, orai, udara hontako zerua lainoz betea dago, eskuko behatzak, Arratiko bailara, Mirenen anai bat, gera eta degu, artzaitxakurrak, kamioizale, hemezazpi, laister* eta *aizkenean* eguneroko ogia bihurtu zaizkigu argitaletxe, prentsa-artikulu eta irrati-emanaldi konkretu batzuetan. Horietako asko, gainera, zenbait euskaltzainen bedeinkapen nabarmenez gainera.

Ez da harritzekoa, noski, egoera horrek euskaldun batzuegan ezinegona eta haserrea ere piztea. Izan ere, ez dirudi oso bidezkoa, batasunaren izenean, batzuei berenak ez dituzten hitzak, aldakiak eta adizkerak ikasteko eskatzeak, eta besteak, ordea –eta bereziki idazle, kazetari eta esatari ustez profesionalaz ari naiz–, beren zilbor-hesteari begira lasai egotea, besterenik ezer jaso eta erabiltzeko inolako interesik izan gabe. Eta zabar-alferkeria hori are salagarriagoa iruditzen zait gainera, bitartean, milaka euskal herritar erdaldun euskara ikasten ari direla gogoan izanda, gizarte-integrazioaren izenean batzuei eskatzen zaiena ez baitago inola ere orekatutik beste muturrekoen axolagabekeriarekin.

Euskara batuaren aitzakian idazle batzuek beren erdialdeko euskalki pribilegiatua bultzatu eta gainerakoen aberastasunak jasotzeko interes berezirik ez dutela ikusirik, ondorioz, beste idazle batzuek, erreakzioz, beren dialektoei eutsi nahi izan diete, eta pendulua beste puntaraino eramanez, euskalki kutsuko guztia goستن eta azpimarratzen hasi zaizkigu. Kasurik nabarmenenetako bat, Xabier Amuriza idazle eta bertsolaria dugu, seguraski. Oker handirik gabe esan daiteke bera izan dugula Euskal Herriaren historian bertsolaritza hizkuntza landu eta idatziarekin uztartzen gehien saiatu dena, hura arlo horretako ez gutxiren herritarkeri kutsutik atera eta bertsogintza mailaz jasoz. Bizkaitik egindako bere ahaleginak Gipuzkoa aldean ez zuela oihartzun handirik ikusita, nonbait, aspaldion, ordea, berriz ere lehenagoko molde dialektaletara pasatu da, hots, kasu egiten ez ziotenen bide berberera. Ondorioz, atzerapauso horrekin guztiok eredu interesgarria galdu dugu, zalantzarik gabe.

Horietako batzuek uste dute euskalkiz idaztea mesedegarria izan daitekeela euskalkien lexiko eta esaldi-emaitez euskara batuan txertatuz eta indartuz joan daitezen. Ene irudiko baina, oker daude. Jokabide horrekin euskalkietako hitzei izaera are lokalagoa ematen diete, mugatuagoa, beren praktikan hitzok erabilera dialektal hutsarekin lotzen dituztelako, eta horixe da, antza, gipuzkeraren oraino hegemoniarekin ondo pozik dagoen zenbaitek nahi lukeena, hain zuzen: euskalkietako hitzak onartu bai, baina euskalkietan idazten denerako besterik ez, horrela pixkanaka euskara batutik erabat zokoraturik gelditu daitezten. Horregatik, euskalki ezberdinetako berezitasunak ate nagusitik sartzeko bide bakarra, ene irudiko, horiek euskara batuan erabiltzea da.

Argi utzi nahi dut, jakina, euskalkietara itzuli nahi horretan maila ugari eta ñabardura franko direla, eta kasu guztiak ez direla zaku berean sartzekoak. Alde bate-tik, badira hasierako euskara batu formalegi eta akademizista hark falta zuen freskotatuna norbere euskalkiaren berezkotasunean berreskuratu gura izan dutenak, lagun- eta senide arteko harremanen erregistroa, adibidez, eredu batuari herri-hizkera txertatzean

osatuko zelakoan. Horiek orok, zer esanik ez, lan bikaina egiten dihardute, gure literatur hizkuntza erregistro berriez aberasten dutelako.

Aitortu beharra dago, bestalde, euskaldun berriok, umetako hizkuntza erdara izan dugulako, seguraski ez garela ongi konturatzen hizkuntza mintzatu dialektalak txikitandiko euskaldunengan zer nolako garrantzi eta lotura afektiboa daukan. Hau, derradan bidenabar, maiz hutsune handia izaten da, euskaltegietan ez baita afektibotasunaren hizkuntza inola ere lantzen, ondorioz, horretarako eredu egokirik ezaz, ikasleak senide, haur txiki, maitaide eta lagunarteko giro berezietan hankamotz utzi-rik. Eta hor ere, jakina, azpie-redu dialektalek badute sarrerarik¹.

Toki jakinetan kokaturiko elkarrizketa biziei sinesgarritasuna emateko ere, euskalkietara jotzea erabaz dezake da, eta Txomin Agirrek berak ere hortixek jo zuen *Garoan*, Oñati ingurukoena hizkera nabarmentzeko. Irrati lokaletako emanaldi batzuk, herritarrekin harreman zuzenak dituztenak bereziki, euskalkiz ematea ere guztiz egokia iruditzen zait. Normala da, bestalde, administrazioan, arduradunek beren administrazioekiko tratua berauek ongien ulertzen duten moduan izatea, edo apaizek sermoiak beren herritarren euskalkian egitea. Zer esanik ez, eskola-ikastoletako ume gehienek euskara aski homogenea egiten duten herrietan, andereñoek, beren lana behar bezain ongi egin nahi badute behintzat, ondo kontuan izan beharko lituzkete tokian tokiko euskararen ezaugarri nagusiak, lexiko aldekoak batez ere, haurrekiko lehen harremanak arrotz eta beren aita-amen hizkeratik urrunegi gerta ez daitezten.

Horretan, ondo kontuan hartzekoak dira, ene ustez, Juan Luis Goikoetxeak toki euskaldunetako haurrak eskolatzeak eskaintzen dituen ideia gehienak, bai eta Koldo Zuazoren proposamen batzuk ere, kasu batzuetan, kasuistika xeheegietan abiatuz gero, praktikara eramanez ezinezko absurdoetara hel gaitzekien arren².

Kezkagarria, ordea, bestea da: zientzi artikulak orain euskalkiz plazaratzen ikusteak; ETBko aurkezle batzuek beren herriko era dialektalak erabiltzea (*hemezazpi*, *artzai*, *gotzai*, *degu*, *gera*...); Bizkaiko museoetako katalogo eta argibideak, Enkarterrietakoak barne, euskalkiz eskaintzea; Euskara batuan holakorik ez dagoenean, Bizkaiko Diputazioak bertoko ikasleen artean euskalkiz egindako agendak banatzea;

1 Giza harreman berezietarako hizkuntz ereduak, noski, sozialki transmititzen dira, eta horregatik zaila izaten da inoiz ikusi ez entzun ez duguna ongi asmatzea. Halere, beren hutsune nabarmenak onarturik ere, zerbait esan beharko lituzkete euskaldun berri/ikasien alde: euskara ikasketa-bidez eskuratuta dutenez, hots, hizkuntzaren sormen-baliabideak ongi berenganatuak daukatelako, maiz, asmamen biziagoa eta itzultzeko ahalmen handiagoa izaten dutela txikitandiko euskaldun letragabeei baino... batzuek eta besteek eredu horiek erdaraz jaso dituztenez. Gogora dezagun, adibidez, maitasun eta sexu harremanak geure artean tabu hutsak izan ditugula orainsu arte, eta giro horretako hizketak, nagusiki, erdaraz jaso ditugula, erdal literatura, irrati, zinema edo telebistako mezu-modeloen bitartez. Alde horretatik, Koldo Zuazok bestelakorik uste izan arren, maizago entzun daitezke txikitandiko euskaldun batzuen ahoan *palo-ma*, *preciosa mía*, *chavala*, *pichoncito mío*, *carriño*, *amante*, *jan lentejitas*, *etorri lolitos egitera*, *a borriquito* modukoak euskaldun ikasienean baino. Bestalde, Iturgaitz jaunak adierazpen publikoetan erakutsi ohi dizkigun etorri eta bokantza mirezgarriak inspiraziotzat harturik ere, ez dirudi "hain beharrezko, ezinbesteko eta nahitaez eutsi beharreko" omen dugun euskara batuari laguntzeko modurik egokiena denik, bera hainbeste nekez eta ikastordu luzez eskuratzen ari direnen lepotik "Marteko euskara" moduko loreak asmatu eta lau haizeetara hedatzea, euskalkiak "über alles" eta "for ever" bultzatu nahi dituztenen fabore, ura beren errotara eramaten utziz. Are gutxiago, "porque jeneralmienten Pamplonako campo de deportesen entrenetan dogu" gisakoak parra-parra esaten dituztenen euskeratxu jatorrari inolako deiturarik ezartzen ez zaionean, zenbait euskaldun berriz gainera, euskalkidun ugari ere euskara txar eta kaxkara egingo ez balute bezala. Eta ez du balio, gero, sorgin-ikaslearen antzera, suarekin olgetan ibili ondoan, inguruak kixkaldurik utzi ondoren, norbere burua ere errerik ikustean, euskara batuaren etsaen profeta berri ustekabea bilakaturik, beranduko damuz aieneka agertu nahi izatea.

2 Kasu nabarienetako bat aste-egunen eta hilabeteen izenena dateke: aspaldiko urteotan Euskal Herrian argitaratzen diren egutegi gehienek eredu batuko izenak besterik eskaintzen ez dituztenez, eta, zenbait baserriako lagunek salbu, kale giroko jende gehienek, era batuek ez badakizkitez, *enerue*, *febrerue*, etab. besterik esaten ez dutenean, herri mailako hizkuntza mintzatu zein idatzian behialako forma dialektalak birpiztu nahi izateak ez dirudi premiazko ez bidezkoa denik. Bestalde, gaurko gizartean dugun lekualdaketa ugari eta toki ezberdinetako euskaldunen arteko ezkontza mistoak gogoan izanda, zaila da hiri handietan -eta ez hain handietan ere- ume euskaldun talde homogeenok aurkitzea, proposatzen diren euskalki-egokitzapen horiek praktikara eramateko, eta are zailagoa izango da, zalantzarik gabe, etorkizunean. Horrek ez du esan nahi, noski, posible diren lekuetan gaitzestekoak direnik.

jendea literaturarik gabeko azpieuskalkietan alfabetatu nahi izatea; kultura jendeagana hurbiltzeko aitzakiaz herri-aldizkariak azpiazieuskalkietako forma tradizio gabe bitxienekin argitaratzea; lurralde historiko bateko berriak Euskal Herri eta mundu osorako prentsaz eta internetez euskalki hutsez eskaintzea, herrialde horretako zona erdaldunetan eredu batua ikasteko hainbeste ahalegin egin duten euskaldun berriei beren herriko albisteak, iseka nabariak, dialektoz emanez; Euskaltzain batek euskara batuan esandako hitzak, edonork ulertzeko modukoak, ondoren Euskaldunon Egunkarian dialektoz eskaintzea, berak halaxe esanak balitu bezala; autobus publiko batzuetan *irteera* barik, *urteera* idaztea; euskalkiak hizkuntzatzat harturik, horiek normaltzeko arauak web orrian eskaintzea; unibertsitatera selektibitatea egitera datozen ikasle batzuek, Eubako ikastetxe famatu batekoek, adibidez, euskara batua ez dakitelako aitzakiaz azterketak euskalkiz egitea, aspaldiko urteotan gertatzen ari denez. Biblia osoa euskaraz daukagunean, oraindik mezako liturgia, aita gurea barne, lurraldez lurraldeko euskalkietan izatea, maiz hitzunen egiazko euskararekin bat etorri ez arren (Eibar, Oñati, Oiartzun, Hondarribia, Irun...). Hitz gutxitan: berez euskara batuari legokiokeen eremuan oraindik euskalkiak jarri nahi izatea, Jon Agirrek, esaterako, argi eta garbi predikatzen duenez³.

Ez ditugu, ordea, beste muturrekoak ere ahaztu behar. Ez da egokia, eta ez, seguraski, euskara batuaren kausagatik bakarrik, Bizkaiko herri euskaldunetako haur txikienekin sistematikoki *kilimak*, *pusketa*, *tronpatu* eta *kausitu* bezalako hitzak erabiltzea, bertoko *kili-kiliak*, *zati*, *okertu* edo *aurkitu* ezagunagoen orde. Euskara batuaren aitzakiaz, ez toki horretako ez inongo den euskalgaiztoaz egindako kartel aldrebesak jartzea ere astakeria galanta da, edo Gipuzkoako herriko jaietako programak agian zuberotarrek hobeki ulertuko luketen euskaraz idaztea, eta gisa honetako ganorabakokeriak.

Abusu hauen aurrean, iruditzen zait euskara batuaren hasierako oinarri ideologikoak birplanteatu, berraztertu eta, behar diren osagarri eta zuzenketa guztiekin, berreskuratu behar ditugula. Eta, hasteko, euskalkien eta euskara batuaren eremuak argi banatu beharra legoke, batak bestearen arloa bidegabeki zapal ez dezan.

Beste herri guztietan bezala, dialektok beren tokia, batez ere, maila mintzatu informalean daukate, etxeko giro eta lagunaren artean, eta gurean, oro har, jendea jatorriz eta txikitandik euskalduna den herrietan bereziki. Horrek ez luke esan nahi, munduko gainerako herri zibilizatu guztietan gertatzen denez, irakurtzearen eta kultura jasoaeren eraginez, zenbait forma mintzatu aberrante, laburtuegiak, erdarakadaz josiak etab. pixkanaka landu eta eredu batura hurbiltzen joatea komenigarria ez denik, toki urrunetako euskaldunok elkar ulertuko badugu, ez baitut uste, zenbaitzuek pentsatzen omen dutenaren kontra, euskaldunik hobereana sekula santan ezer irakurri gabea denik.

Euskalkiz idazten denean, gainera, beherago aipatuko dudanagatik, hizkuntza batuaren eredia ahalik eta gehien eduki beharko litzateke kontuan, eta herrian edo herrialdean bi aldaera erabiltzen direnean, zabalduenari eta batuenari lehenasuna eman (*alkarregaz*, ez *arkalaz*; *aurten*, ez *aurton*; *balitu*, ez *baleuz*; *gertatu*, ez *gertau*; *guraso*, ez *burraso*; *jende*, eta ez *jente*; *kalitate*, ez *kalidade*, *liteke*, ez *litaik*, *sartu*, ez *sartun...*), EGUNKARIAko Bizkaia gehigarriaren arduradun –itxuraz– giputzek hain sistematikoki idazten dituzten eta bizkaitar gehienoi hain xelege gertatzen zaizkigun *alabearren*, *enpreseak*, *eskolean* horiek ez aipatzearen. Edonola ere, eta berriro diot, euskalkietako hitz bereziak, sinonimoak, esaerak, joskera bitxiak etab. beti izango dira zilegi eta ongi etorriak eredu batuan ere, zein bere erregistro egokian.

³ Edonola ere, sintomatikoa da, euskalkia denetarako erabili behar dela dioten askok bere lanetan maila apal nabarmena erabiltzea, ezer irakurtzeko ohiturarik ez duten jende letragabeak erakartzeko alferreko ahaleginean nonbait.

Literatur hizkuntza batuaren arloak, ordea, gainerako eremu formal guztiak dira, eta, izenak berak adierazten duenez, oso bereziki zeregin idatziak: irakaskuntza, literaturgintza, ikerkuntza, administrazioa, seinalizazio-kartelak, hedabideak etab. Horrek ez du esan nahi, jakina, gaurko euskaldunon egoera soziolinguistikoa kontuan izanda, lexiko eta sinonimoen erabileran, batzuetan tokian tokiko egokitzapenak gaitzestekoak direnik, gure hizkuntz koktela oraindik behar bezain irabiatuak ez dagoelako, baina beti ere eredu batu literarioa errespetatuz (*amama/amona/amandre/amatxi, apur/pixka/poxi/amiñi, ahalke/lotsa, artez/zuzen, aurkitu/topatu/idoro/ediren/kausitu, debekatu/galarazi, gurdi/orga hitz/berba/ele/mintzo, irten/atera/jalgi/ilki, jausi/erori, jolasean/olgetan, nahi/gura, neba-arreba/haurride, ondo/ongi/ontsa, txakur/or, txerri/urde...*) tradizioerik gabeko txokokeria, laburpen, arrunzeria edo aldaera dialektal hutsei sarregarik eman gabe: *arkitu, arpel, arrai, artzai, erten, galazo/galazi, ipui, iten bozu, mahain, oai/oin/guai, pasau, pentseu, ukusi, usai...* Eta ez nituzke aipatzeke utzi nahi herri-hizkeren aitzakiaz aspaldion bazterretan agertzen hasi zaizkigun *merenderue, bentaneruek, karroak*, edo *biberoak* bezalako erdarakada gordin horiek.

Era berean, eremu erdaldunetako eta etorki ezberdinertako ikasleak dauzkaten hiri nagusietako eskoletako irakaskuntza, maila jasoko hitzaldiak, irratiteleratetako emanaldiak, film itzuliak, irakaskuntza (bereziki maila gorenertan eta ingurua erdal-duna den tokietan: Enkarterriak, Errioxa, Erribera, hiri nagusiak...), kamera eta mikrofono aurreko adierazpenak, informazio-argibide orokorrak (geltoki-aireportuertan, erostetxe handietan etab.) euskara ahalik eta batuenean egitea komeni da, horrela hizkuntza eredia finkatzera laguntzeaz gainera, irakurtzeko ohiturarik ez duten herritarrek, batez ere adin batetik gorakoek, begiak ezean, belarriak bederen euskara batura molda ditzaten.

Egia esan, modalitate bien artean etengabeko osmosia gertatuko da, hurbiltze bidean. Horrela, literatur hizkuntzak jende xehearen hizketatik maiz berba apal, arrunt edo dialektalak bereganatzen ditu, horietako batzuk jargoi edo esangura berezietarako espezializatuz. Herritar arruntak, aldiz, irakurketaz, eskolan dituen seme-alabei entzunda, hedabideen eraginez eta, pixkanaka eredu jaso eta aberatsagoaz jabetuz doa, horiek aldizka, berak ere zerbait badakiela erakutsi nahi duenean, hobekixeago mintzatzeko erabiliz. Eta fenomeno hau gero eta nabarmenagoa da gazte jendearen artean, gaur egun bere euskalki hutsean berba egiteko gai direnak ia-ia erabateko analfabetoak izanik, hots, testu ida-tziekin eta komunikabideekin inolako harremanik izan gabeak.

ESTANDARIZAZIOAREN INGURUAN

Bestaldetik, ez letorkiguke batere gaizki hizkuntzaren estandarizazioaz gogoeta labur bat egitea, ideiak argi eta ordenaturik edukitzeko. Jadanik XVIII. mendean Joanes Etxeberri Sarakoak ongi azpimarratzen zigunez⁴, hizkuntza batuak, eredu gisa balio izatekotan, bat eta bakarra izan behar du, eta ez bi, hiru edo gehiago, kasu horretan erremedioa gaitza bera baino okerrago gerta daitekeelako. Horrexegatik, gorago aipaturiko egokitzapen lokalak kontuan izanda ere, estandarizazioak, berez, zeregin jaso batzuetarako eredia ukaitea esan nahi du, baina eredu bakarra eta esklusiboa,

⁴ "Halatan bada gure eskuara zurtz jabegabeko, eta hainbertze mendez mende arrokapean, itsaso, eta uhinpean galdu ordean bezala dabilan hunentzat, nahi nuke bilhatu aitzindari, eta buruzagi on bat bakharra; erran dut bat eta hura bakharra, zeren asko orduz hainitz aitzindari, eta buruzagiren izatea baino, hobe balizate osoki bathere ez izatea: *Nam confregit Dominus conquassabit capita in terra multorum* (Ps. 109). Aitzindari, eta buruzagi hainitz den lekhan behin ere ezta enkontru onik, aitzitik han kausitzen eta izaiten ohi dira nahastura, gudu, eta eskatima franko: handik dio Iskribu Sainduak ere: *Omne regnum in se divisum desolabitur* (Luc, 11 v. 17) Hargatik beraz aitzindaria edo buruzagia behar da izan, lehen erran dudán bezala, bakharra, baina hura ona eta behar bezalako". Joannes Etxeberri Sarakoaren *Lan hautatuak*, Lur ed., Donostia, 1972, 115-116 orr.

egiazki guztiahalduna izateko, filosofo klasikoek zuhurki irakasten zuten, Jainkoak berak ere bakarra izan behar duen bezalaxe.

Halere, estandarizazioak, bere erabilera-eremu sozialaz gainera, beste premisa bat ere badakar aldean: eremu geografiko zabala izatea, hain zuzen. Euskal Herri osorako hizkuntzaren batasuna seriooki planteatu aurretik, literatur euskalkiek zeinek bere erabiltze-esparru geografikoa zehaztua zuten. Horrela, bizkaitarren arteko eredu idatzia erabakitzean, konturatuta zein konturatzeke, jaurreriko idazleek barruti horretako aldakien artean hautatu behar izan zuten. Adibidez, jendearen ahoan bizi ziren *dabe/daudie/daurie*, *guzti/duzti*, *ikasi/ikesi/ikisi*, *izen/uzen*, *sartu/sartun* formen artean lehenak hobetsi ziren. Hor –eta hori ere Mitxelenak inoiz zuhurki oharrarazi zigun– Sabino Aranak berak ere, bizkaierarako arauak ematean, lurralde historikoaren mailan bada ere, eredu batu bakarra proposatu eta bultzatu nahi izan zuen.

Jakina, euskaldunok herrialde-kontzeptu probintziala politikoki oraindik gainditua ez genuenean, eredu lokal bakoitzaren ondoan, baziren, zein bere esparru esklusiboan, beste batzuk ere: bizkaiera, gipuzkera, lapurtera eta zuberera, tradizionalki literatur euskalkiak deituak, hain zuzen. Horietako bakoitzak aldamenen hiztun-multzo handiago edo txikiagoa zeukan, bai eta nola edo halako liburugintza ere, baina oinarritz, bakoitza bere eremurako moldatua izanda, hortik kanporako pretentsiorik ez zuenez, bere barruti horretan buruaskia zen, hau da, autarkikoa. Alde horretatik, Greziako antzinako dialektoeekin gertatzen zenez, berdintasun egoeran bizi ziren elkarren ondoan. Halere, Atenasko aldaera, koine famatua, eratuz joan zen heinean, oreka horrek ez zuen luzaro iraun, eta prestigio handiagoko eredu hura sortu zenetik, laster, *primus inter pares* izatetik, gainerako guztien erreferente nagusia izatera igo zen.

Horixe zen, preseski, Mitxelenak azaltzen ziguna hizkuntzaren eta dialektorearen arteko ezberdintasuna, nolabait, planeta-sateliteen artean dagoena bera dela zioenean. Eredu batua sortu eta indartzen den neurrian, dialektuak hizkuntza nagusi hori du erreferente eta jarraibide, sateliteak bere planeta duen bezala. Eta konturatu ez bagara ere, euskararen arloan azken urte hauetan euskalkien balioespenean, hierarkia bera mamitu da: lehenagoko berdintasun-egoera hartatik menokotasun-egoerara iragan gara. Gaur egun hiztunon erreferentzia nagusia euskara literarioa da, euskaldun gehienon buru-gogoetako eremu geografikoa Euskal Herri osoa den bezala, hots, euskaldun nazioa, eta ez, soilki, norbere probintzia edo herrialdetxoa.

Alde horretatik, lehenagoko panorama hura sakonki aldatua denez gero, euskalkiekiko pertzepzioa ere birkontsideratu beharra daukagu. Adibide argi bat ipintzeko, antzinan Bizkaiko ikuspegi hertsitik, bizkaieraren batasuna egiteko orduan, *ikasi* forma aukeratu bazen, jaurreri honetan erabiltzen ziren beste aldaerak baztertuz (*ikesi*, *ikisi*), -berauek, linguistika aldetik, hautatua bezain onak izan arren-, oraingo honetan Euskal Herri osorako nazio-hizkuntza-planteamenduan, gauza bera egiteko ordua heldu da erro bereko beste aldaera guztiekin ere. Eredu batuan *aulki*, *atera*, *bakoitza*, *belar*, *berri*, *bezala*, *eliza*, *elur*, *eman*, *eskaini*, *gezur*, *guraso*, *gutxi*, *ile*, *olio*, *oroitu* edo *soro* hobetsirik gelditu diren unetik, euskalki ezberdinetan ahoz esaten diren *alki*, *atara*, *bakotxa*, *bedar*, *barri*, *bezela*, *elexa/eleiza*, *edur*, *emon*, *eskeini/eskini*, *guzur*, *burraso*, *gitxi*, *ule/ulle ori*, *orroitu* edo *solo* aldaerak holakotzat hartzen ari dira, hots, forma **idatzien** aldaera **mintzatu** hutstzat, dialektologoentzat seguraski biziki interesgarriak, baina hizkuntza idatzian inolako sarrerarik izan behar ez dutenak, *duzti*, *erten*, *galazo* edo *uzen* berba aspaldian baztertuek ere merezi ez zuten arrazoi berberagatik.

Hitz gutxitan, ene ustez, gaur egun ez dago inolako justifikaziorik hitz berberaren bikote hauekin irakurleen begiak alferrik nekatzen segitzeko, forma eredu estan-

dar eta era idatzietan maizenik agertzen denaren ondoan, sokatira antzuan, bigarren mailako beste fantasma absurdoak ere mantendu guran. Estandarizazioak, neurri handiz, itxura idatzia, nortasun grafikoa finkatzea eta kontsakratzea esan nahi du, eta ondorioz, herri zibilizatueta behintzat, inori ez zaio irakasten tradizio idatzi gabeko aldaerarik edo literatura modernorik ez duen dialektorik. Hizkuntza batean alfabetatzeak irakurtzeko aukera zabalduna eskaintzea esan nahi baitu. Erdaldun maisu bati, adibidez, ez litzaioke burutik pasatuko, ikasleen erraztasunaren aitzakiaz, bere herriko analfabetoei *eso mesmo la dije a la güela, ven pacá, estuvistes ay, ansí, eto me paice mu güeno, endemás, satamente* edo *pos ha venío* modukoak irakastea, esaten diren modu berean behintzat, horien forma estandarrak baizik.

Hortaz, bistan dago, hizkuntza batuarekin inolako harremanik izan nahi gabe eta azken hoge urteotan eredu batuak hezkuntzan, hedabide eta administrazioan egin duen bide luzea ahazturik, euskalkiak estuki arautu, beren behialako forma idatzian mantendu eta bultzatu nahi izateko saio batzuk alfer-lanak direla, eta ez luketela kritika berezirik ere mereziko, ahalegin horietan euskaldunok geure indar urriak sakanabatzen eta hondatzen ari ez bagina, inguruko erdara ongi finkatuen mesedetan. Aldamenean eredu batua duen beste edozein hizkuntza ofizialek bezala, gurean ere euskalkiek, berez, komunikabideen, irakaskuntzaren eta administrazioaren eraginez, etengabeko erosio prozesua jasaten dute, pausoz pauso hargana hurbilduz. Eta behin prozesu hori hasiz gero, dialektoen isolamendua behin betiko hausten da, egoera erabat aldakorra dute, atergabeko hurreratzeko eta asimilazio-bidean abiatua. Joera natural hori, gaurko hitzunez jadanik ez dakiten behialako modeloaren arau zaharkituz eta korronte nagusiaren kontrako neurri bitxiekin gelditu eta oztopatu nahia marea gorei kanaberazko hesiak jartzea bezalakoa da.

DIALEKTO ALA HIZKUNTZA?

Lawrence Arabiakoaren film famatuko pasarte bat ekarri nahi nuke hona. Gogoan dukezuenez, protagonistak, Akabako portutik irten eta Sinaiko basamortua zeharkatu ondoren, Kairora heltzean, Allenby mariskalarekin hitz egiten du, eta bere konkistak sendotzeko, armak eskatzen dizkio arabiar lagunentzat. Hasieran fusilak, gero metrailadoreak eta ondoren munizioak. Kasu guztiotan mariskal ingelesak, aldamenean zuen Dryden aholkulari diplomatikoaren onespenez, baietz erantzuten dio. Hurrengoan baina, Lawrencek arabiarrentzako kanoiak eskatzen dizkionean, diplomatikoak, erabat asaldaturik, honela dio: “Kontuz jenerala, kanoiak emanez gero, independentzia emanen diezu eta”.

Hizkuntzen arlora itzuliz, nolabait horixe bera esan daiteke dialektoez ere: Dialekto bat grafiaz, morfologiaz eta gramatikaz erabat arautzen denean, bere independentziarako tresnak eskaintzen zaizkio, hots, ordura arte dialekto izandakoa hizkuntza bilakarazten dugu. Beraz, geure buruari galdera hau egin behar genioke: ea euskara **bat** nahi dugun, ala euskal hizkuntza **batzuk**. Eta bigarren kasu honetan, jakina, ea gure egoerak, demografiak eta baliabideek aukera hori aurrera ateratzeko erarik ematen ote diguten ere, behin anizbide horretatik hasiz gero, zatiketaren zatiketaz tokian tokiko modelo ezberdinen bila noraino hel gitezkeen asmatzea zaila ez den arren.

Norbaitek esan dezake inoiz, eredu estandarraren ondoan, azpiestandarrak ere izaten direla, baina ez gaitezen engaina. Horiek eskualde zabal oso ongi mugatueta

eta hiztun kopuru handiz hornituak izaten dira. Gainera, konbergentziarako borondaterik ez dagoenean, azpiero horiek azkenean hizkuntza beregainak bilakatzeko joera dute, katalan/valentziera, galego/portugesera edo serbiera/kroazieraren kasuetan argi eta garbi gertatzen denez, gauza jakina baita, dialektoreen eta hizkuntzaren arteko ezberdintasuna, linguistikoa baino gehiago, maiz subjektiboa eta soziologikoa izaten dela. Bestelako kasuak ere badira, noski, errumaniera/moldaviera eta turkiera/azerierarena, adibidez, Sovietar Batasunaren peko bigarren eskualde horiek ondoko senideekin elkartzeko lehen neurria aspalditxoan hartua baitute jada, alfabeto zirilikoa utzi eta latindarra onartzean.

Ez nuke ixildu nahi euskararen azken urte hauetako dialektizazio-joera honetan bazterretan zabaldu den informazio faltsu eta kaltegarria: euskalkien aberastasunaren kontuaz ari naiz. Izan ere, dialektok altxor aberasgarritzat aurkeztean sarritan gauzak nahasi nahi izan dira maltzurki. Alde batetik, behin eta berriro azpimarratu dut euskalki guztietako fraseologia, lexiko propio, ezberdin eta berezitua, ezin utzizko aberastasun-iturri bikaina gertatzen dela guztion euskara batua osatzeko orduan. Baina hitz berberaren aldaera hutsez ari bagara, (*beltz/baltz, direla/dirala, eduki/euki, elkar/alkar/elgar, eman/emon, erabaki/erabagi, etortzea/etortea, gainean/ganean, igo/igon/igan, jaiak/jaixak, jende/jente, naiz/naz, nazio/nazino, nintzen/nintzan, noiz/noz...*) argi esan behar da hor ez dagoela inolako lexiko-aberastasunik, Mitxelenak inoiz salatu zuenez, eta bai erraztasunerako, normalizaziorako eta elkar aditzeko oztopo absurdoak.

Filologoen ikuspegitik, ordea, egia da aldaera dialektaletan azken buruko etimoa topatzeko edo hitzen bilakaera historikoa argitzeko arrasto oso interesgarriak aurki daitezkeela, baina horrek ez du zerikusirik ohiko hiztunek elkar aditzeko behar duten erraztasunarekin, ez eta hizkuntza biziaren normalizazioarekin ere. Halere, badirudi euskalkizale eta dialektologo batzuek, deformazio profesionala azken muturrera eramanda, oraindik bitxikeriak esaten dituzten hiztunak –eta dirudenez zenbat eta letragabeagoak hobeto– giza zoologiko pribatuetan kontserbatu nahi lituzketela beren plazer partikularerako, edo agian beren klub txikiko kideei giza espezimen horiek erakusteko, magnetofoiak aspaldian asmatu zirela ahaztuta nonbait. Eta gauden egoera honetan, jendea inolako testu idatzirik ez daukan bere txokoko euskera-txuan alfabetatzeko saiokat egiten jardutea, esan ditzagun gauzak garbiki, horko ikasleak lotsagabeki engainatzea besterik ez da⁵. Eta ez du balio, ondoren, kausalitatearen ordena hankaz gora jarrita, joan den mendearen hasieran Federiko Belaustegigoitiak jadanik salatu zuen “azutegiko euskara” edo “*euskera de barriada*” moduko aldaerak maila idatzira eramaten saiatzeak, egiten ari den alfabetatze lan desegokia a posteriori justifikatzeko.

Gertakariak historian bi aldiz jazotzen omen dira: lehenbizikoan tragedia moduan eta bigarrenean fartsa gisa. Euskal Herrian hizkuntzaren batasunaren planteamenduak oraingoarekin, hiru aldiz errepikatu dira. Beharbada buru gogorreko komediante txarrak garelako, edo agian noizik behinkako ziklo itsuetan galdurik gabiltzan ero hutsak. Horrela, batzuen eta besteengatik geure hizkuntzaren iraupenari berari erronka ez txikia jasanarazten diogu etxe barrutik, frantsesak eta espainolak kanpotik egiten dizkioten

5 Gure arteko zorakeriak ikusita, gogora datorrit, ezinbestean, Arthur Koestler-ek bere biografian kontatzen duen pasadizo xelebrea, Sovietar Batasun sortu berria bisitatu zuenean berari gertatua. Behin Asiako lautadetak Merv herriko eskolara eraman zuten, Afganistandik ez urrun, eta ikasgela batera sartu zenean, harriduraz ikusi zuen, maisuaren keinuari jarraituz, ikasleek *A guten Tog!* esanez agurtzen zutela bera, alemanezko ohiko *Einen guten Tag!*-en ordeztu. Izan ere, bere ezjakintasunean, errusiar irakasle gizagaixo hura, alemana barik, yiddish-a irakasten ari zen, hau da, Europaren erdialdeko juduek zerabilten Erdi Aroko aleman dialekto zaharkitu bat, hebreerazko hitzez josia. Arthur KOESTLER, *Euforia y utopia*, Alianza Editorial, Madril, 1977, 190. or.

erasoak aski eta sobera ez balitu bezala. Eta oso sintomatikoa da, gauzak ikusi eta ulertu nahi duenarentzat behintzat, atzora arte euskararen kontra jo eta ke ibilitakoek, orain, euskara estandarren arrakasta ikustean, bat-batean, herrixka eta famili giroko dialekto beneragarri eta “egiazkoen” aldeko porrokatu agertu nahi izatea⁶, baina jakina, aldi berean orotarako erabili nahi den euskara batu artifical horren kontra. Garbi baitugu guztiok, azken buruan, bide bakoitzak nora garamatzen.

Ordua da honelako eho-desehotzeko penelopekeriei behin betiko amaiera emateko. Pentsatzen dut serioski planteatu behar ditugula hizkuntza batuaren eta dialektoen funtzio-eremuak eta hauen banaketaren lerro nagusiak, batak besteen arloa zapal ez dezan eta guztien artean elkar osatzeko bide aberasgarria zabalik gera dadin. Era berean, euskara batuaren hasierako kontzepzioa bera berreskuratu beharra daukagu, euskaldunen elkargune eta gure arteko batasunaren ispilu izan dadin, batzuk beste-enganetik ikasteko prest egonez, berdintasun egoeran, inoiz sentitu ditugun nagusimenpeko arteko harreman latz eta deserosoak oro behin betiko uxatzeko.

6 Eta, zalantzarik izanez gero, aski luke irakurleak Jaime Ignacio del Burgok bere iazko liburu sonatuan (*El ocaso de los falsarios*, Editorial Laocoon, Madrid) euskara batu eta euskalkie buruz idatziriko pasarte argigarriok irakurtzea: “No podía ser de otra forma porque se trataba –dicho sea con el mayor de los respetos– de una lengua rural y primitiva, incapaz de competir con el latín y de evolucionar hacia formas más avanzadas que, quizás, hubieran podido convertirlo en idioma nacional”... “Más aún, de no haber sido porque la Real Academia de la Lengua Vasca decidió a mediados del siglo XX, en pleno franquismo, acometer la tarea de unificar los dialectos vascos y las reglas gramaticales así como la traducción a veces artificiosa del diccionario de la lengua española (sic) al nuevo idioma unificado o batua, la pervivencia del vascuence –ya de por sí muy difícil– hubiera sido tarea imposible”. (...) “Pero para impulsar el euskera como lengua nacional era imprescindible proceder a la unificación de los diversos dialectos, pues de lo contrario era imposible el entendimiento entre los étnicamente iguales. Kruzwig (sic) convenció a la Real Academia de la Lengua Vasca de la necesidad del batua o lengua unificada. Hubo académicos discrepantes, que entendían que la unificación pretendida iba a suponer la condena a muerte –como así ha sido, digan lo que digan– de las variedades dialectales originarias, a pesar del brindis al sol que representan los preceptos de las leyes de promoción del vascuence que hablan de su especial protección por parte de los poderes públicos. A los nacionalistas no les interesan los monumentos lingüísticos del pasado, hechos para disfrute de filólogos de lenguas muertas, sino la implantación de un modelo lingüístico único que pueda servir como idioma nacional y alternativa real al castellano. Por eso se gastan tantas energías en promover el euskera. El batua es el eje fundamental de la construcción de la nación euskalherriaca. Y aquí no hay lugar para el romanticismo del que hacían gala los escritores eúskaros, precursores del nacionalismo vasco en Navarra, como Campión, Iturralde, Aranzadi, Olóriz”. (...) El declive del vascuence es un proceso secular que tiene múltiples causas y nada tiene que ver con esa supuesta represión del idioma por motivos políticos. La razón fundamental de la regresión del euskara reside en su incapacidad para competir primero con el latín, después con las lenguas romances y, por último, con el castellano” (...) “el euskara seguía siendo un idioma rural y primitivo, utilizable únicamente en las relaciones humanas y familiares más elementales. La transmisión del vascuence tenía su ámbito natural en el hogar, allí donde tenía la consideración de idioma materno. Pero los vascoparlantes eran analfabetos...” (82-84. orr.) (...) “No hubo, en conclusión, ningún genocidio cultural ni antes ni después de la incorporación a la Corona de Castilla, ni en los años del franquismo. Si el euskera no se convirtió en el idioma “nacional” de los navarros fue porque no reunía las condiciones necesarias para ello, tanto porque no se habló nunca en importantes zonas de Navarra como por el hecho de su incapacidad intrínseca para ser considerado como idioma de cultura, al menos hasta que llegó el batúa” (85-87. orr.).

2

Bizkaia

Juan Luis Goikoetxea Arrieta

1. ITAUNA: EUSKARA BATUA-EUSKALKIA NIRE HERRIALDEAN.

Hasiera-hasieratik jokatuko dut euskalkia erabiltzearen eta irakastearen alde. Beti ere jakinik, euskara batuaren ondoan jartzen den bizkaierak arazoak sortuko dituela.

Jarraian adierazi gura nuke bizkaiera bezainbat dela neurea euskara batua, bate-tik *egiken* ondoan *ezak* erabili izan delako bizkaieraz, bestetik, bataren zein bestearen alde egindako lanek biekiko lotura ezin estuagoak sortu dizkidatelako.

1968ko Txillardegiren “Literatura-hizkuntza osatu, ala euskalki guziak hil” (*Euskera* XIII, 222) egiazkoari, gaur Erramun Baxoken ideia hau ere –berez, 1987koa dena- gehitu beharrean gara: “behin betikoz jakin dezagula, jatorrizko hiztunek daukatela konpetentzia, eta euskaldun zaharrak ez badira euskaldun, ez da euskararik, arima gabeko euskaranto hil bat baizik”. (Baxok, 1987:10).

1968 ezkerero, Bizkaiera –euskalkiak- egoera diglosikoan jarri ditugu euskara batuaren ondoan. Ferguson-en araberako antolaketan, euskara batua goian eta bizkaiera behean. Euskaldunon borondatez eratutako banaketa honetan, historikoki akats handia egin dugu, bizkaierari ez baitzaio bere *locusa* izendatu. Euskalkiak iraun dezan esparru jakinak, funtzio argia eskaini behar zaio, ezen, Koldo Mitxelenak idatzi zigunez, “Las lenguas ocupan espacio, lo mismo que el saber”, (*Lengua e historia*, 200).

Bakoitzak bere funtzioak betez gero, Mackey-k dioenez eleaskotasuna iraunkorra da. Bizkaieraren lurretan bizi den hiztunak, egoera batzuetan bizkaiera erabiltzen du, beste batzuetan euskara batua, Fishman-en “nor mintzatzen den zein berbetatan norekin eta noiz” hura izan behar baita gogoan, (*Bilingualism in the barrio*, 1965).

2. ITAUNA: ETORKIZUNARI BEGIRA ZELAN IKUSTEN DUZU BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UZTARDURA?

Bizkaiera heteronomia da “dialecto de”. Autonomia dagokio, ez independen-tzia. Hala ere, bizkaierak badu izaera bat, eta bizkaieradunak ere badauka horren

kontzientzia. Lekeitioko neska-mutilen artean % 79,5ek darabil laguneren artean Lekeitioko aldaera, % 1,1ek euskara batua, (Elordietak eta *The Basque Dialect of Lekeitio*, 3).

Bizkaiera heteronomo izatean, euskara batuaren eragin handia jasotzen du, eta bizkaieradunok jo eta ke dihardugu bizkaierak ere euskara batuan eragin handia izan dezan.

Euskaraz bizi dena, sarri-sarri topatuko da euskalkiarekin –baldin euskaraz bizi bada-, dela prentsan, dela irrastian, dela, batez ere ahozkoan. Horregaz esan gura dut, bai euskara batua zein euskalkia aldaera biziak direla.

Euskara batua zein euskalkia bizirik badira, ez da arrazoirik eskolan ere biak ez lantzeko. Euskalkia lantzen ez bada, bizkaierak “eredu inkonszientea” izaten jarraitzen du Sapir-en hitzetan, eta “eredu konszientea” euskara batua. Horrela, jardunean bizkaiera eta batua lehian ager daitezenean “eredu inkonszienteko” elementua galdu egiten da. *Berbaz ibili* inkonszientekoa –bizkaierakoa-, *hizketan ibili* konszientekoaren aurrean *berbetan ibili/hizketan ibili* bilakatzen da, *berbaz ibili* galdurik.

Halan da ze, landu egin behar dira eskolan, euskalduna atxiketze-ereduan –dakienetik ez dakienarakoan, Ausubelen ikasketa esanguratsuan– hezikik, eta erdal-duna murgiltze-ereduan.

Irakaskuntzan ezin ahaztuko dugu, euskalkia eta euskara batua ukipenean bizi direla, ukipen gunea hitzuna dela. Ondorioz, batutik bizkaierara eta bizkaieratik batuarako eragina etengabea izango da hitzunarengan, erabili arren bizkaiera funtzio batzuetarako eta euskara batua beste batzuetarako.

Gainera, etxetik bizkaiera dakiena da bere euskara lantzean etxeakoaren eta eskolakoaren artean zubi egiten duena, baita euskaldun zahar eta berrien artean ere bitartekotza egiten dakiena. Har itzazu adibiderako idazlan bi euskara batuan, bata bizkaieran alfabetatuarena, bestea etxekoa saihesturik batuan ikasia. Froga erraz bezain argigarria. Euskalkia landu gabe dagoenak honela jotzen du:

zuzen zekienaren aldamenean, okerra darabil: “urtietan” ahoz esanik, “urtetan” idatziz euskara batuan.

Euskalkiko erabilera ugari fosilizatuta utziz: *ganorabako*, bai baina *diru bakoa*, ez. Euskara batuan bizkaierako elementu asko isilduz.

Txorierriko ikasleak, kasurako, euskara batua ardatz dela ikastea komeni da, *duteren* ondoan *dabe* eta *deurie* testuinguru egokietan landuz. Jakina da ikasleak eza-gutu dezan irakasleak ere beharko duela.

3. ITAUNA: ZER GEHITU ETA ZER BAZTERTUKO ZENUKE EUSKALTZAINDIK EMANDAKO ARAUETATIK, EUSKARA BATUA-EUSKALKIAK BIKOTETIK ABIATUTA?

Beldur naiz, euskara batua-euskalkien arteko eztabaida, beste behin ere, idatzira ez ote dugun mugatzen, arazorik larriena ahozkoa dugunean. Orain herri batzuetan ahoz esaten den eran idazten dabilta: *alabia* bada ahoz, halaxe idatzita. Dena dela, ida-tziak bere arauak ditu eta ahozkoak bereak. Gero etorriko da idatzia nola irakurri. Umore apur batez, esan dezagun adibiderako, frantsesez prologoa, *prologue* esaten

dena, inork irakatsi ezik euskaldunok *pro-lo-gu-e* irakurriko genukeela, hau da, ez dela idazten esaten den gisan.

Leku batzuetan agertu den joera, herri-herrikoa idatzi gura izatea, agian, ikus-pegi honetatik behatu beharko genuke: hiztunok badakigu berbetak ez direla tresna objektiboak eta sozialki neutroak, ezen esanahia transmititzen dutelarik, talde sozial eta etnikoen identitatearekin loturik baitaude, eta ondorioz, eragina dute hiztunen jarreran.

Azken aldian identitatea lekuko euskaran, ia-ia familiakoan bilatu izan da, horretarako besteengandik bereizten gaituena azpimarratuz.

Baina norbere herriko euskara idatzi gura izatea 1968an baztertu zen: “Niretzat Errenderiakoa da errexena eta ederrena...hala ere *eitten du, egiten du* idazten dut” (Mitxelena, *Euskera* XIII, 240). “Orroit ditela batasun zahar hori –Laphitz, Duvoisin– eta Diharasarrirena garbizaleak eta *ene xoko-moko* zalek gal arazi daukutela. Euskal Herri osoa bezain zabaleko bihotza izan dezagun guziek” (Iratzeder, *Euskera* XIII, 223).

Herrian herriko euskara idazteko, leku bakoitzerako euskara batua sortu behar da eta nonork aukeratu forma desberdinen artean, eta arautu, ezen eskolan inork ez du ikasten amarena –bere amarena– herrikoa ikasi arren. Nire gurasoak auzo bereko izanda, 57 urtean batera bizi arren, batak *urebioa* esaten zuen eta besteak *udebioa*. Areago, aitak berak aditzean behin *giñen* eta jarraian *gintzezan* erabiltzen zuen.

Pertsona bakoitzak bere ideolektoa dauka, ez da aldameneko lagunaren ideolektoaren pare-parekoa, nahiz eta elkarren artean berba egiteko adinako antzekotasuna izan.

Bestalde, euskaldun alfabetatu bakoak ere badaki -kate mintzatuko berben arteko talkagatik- ahoskatzen duenaren sakonean badela forma osoago bat, berak gogoan daukana. Esate baterako:

- *Or dau arasoa, ba!*
- *Ser diñosu?*
- *Or dagoela arasoa!*

Horren aurrean zer idatziko dugu? Forma osoa, alegia, *hor dago*.

Ez dugu ahortzi behar hiztunak badituela forma osoak bereganatzeko bideak:

Lehena, Patxi Uribarrenek dioskuna: *emongotsuten* ageri ez den lexema, *ez dotsuten* agertzen jako forman.

Bigarrena, zein euskaldunek ez ditu entzun berben forma osoak, bertsolarien ahotan, elizan, kantaren baten edo telebistan? “Bizkaiera batu modukoa egiten genduan bertsolariok, ez herri-herrikoa, euskara batua sortu arte be” esan zidan Jon Lopategik. Gipuzkoako bertsolariak ere berdintsu, ez, zeozelan adierazteko, Urliia pilotariak komentaria lanetan erabiltzen duena –zein bestalde eder-ederra den–.

Hola jokatu ezik, Mitxelena irakasleak zioenez, siglak idaztera helduko ginatke. Plaentxian gertatua kontatzen digu: entzutean “Erreipe, ni zigarroa erretzera noiak”, erreipe RIP hilerrietakoa idatziko litzateke. (Mitxelena, *Euskera* XIII, 242).

Halanda ze, euskara hizkuntza bat da, eta ez hizkuntza asko. Beraz, hizkuntza osoarentzat balio duenak, balio du euskalki bakoitzerako ere. “Ortografia desberdina

erabiltzea –bustiduretan kasurako– hizkuntza desberdintzat hartzea da”. (Bergarako Biltzarraren adierazpeneko 5. puntua, 95).

Besterik da, eta oso beharrezko, etxeko euskara jaso eta prestigiatzeko hiztun bakoitzaren ahozkoa jasotzea idatziz, behar diren fonetismoak eta erabilia. “Halaxe egin izan du Jose Migel Barandiaranek lehen –Iñaki Gamindek orain– herriaren ipuinak, esaerak eta aztikeriak biltzen ibili delarik, herriak eman dizkion bezalaxe batu eta azaldu edo Juan San Martink *Zirikadak* eta *Eztenkadak* eskribitu zituanean”. Salvador Garmendiak 1968an esana; baina ez ahoz esaten den antzerako kodigo idatzi bat sortzeko, hiztun guztiek modu berean berba egingo balute bezala. Ez da kon-tua eta belarrietarako idaztea, begietarako baino.

Zein bizkaiera?

Euskara baturako euskaltzale guztiek eman dezakete iritzia, baina erabaki erakunde bakarrak egiten du, Euskaltzaindiak.

Euskalkietan ez da gauza bera. Euskara baturako legez euskaltzale guztiek eman lezakete iritzia, baina ez dago erakunde bakarra erabakiak hartzeko. Hortik sortzen da, adibidez, bizkaierako atal batzuetan eredu bat barik hiruzpalau izatea. Bizkaierak esperimendu linguistiko ugari jasan behar du kodifikazioan, prestigioa galduz. Hori, ordea, ez da bizkaieraren errua, euskaldunon anarkiarena baino. Sakonean, gainera, uste bi behintzat badira, batak bizkaiera lehengoan mantendu behar dela dio, besteak, gaurkotu. Horien aurrean, nik uste dut euskara batuaren eragina bizkaieran ez onartzea, bizkaiera ez modernizatzea dela. Etorkizuna, ostera, euskalkiko erudia eta batukoa hurbiltzetik dator.

Bizkaierak polemika baino dinamika dakar.

Euskalkiari ez zaio komeni polemika iraunkorrik. Bizkaiera-polemika bikoteak kaltea baino ez dakarkio berbetari. Bizkaierak auzolana behar du eta adostasuna. Irakasleak jakin behar du zelan irakatsi, baina batzuetan ez daki zer irakatsi, zer bizkaiera. Halakoetan arautu beharrean gara.

Irakasleak ez dauka ia zerekin irakatsi. Non dira metodoak, eskuliburuak, liburu irakurgarriak?

Orokorrean, diskurtsoa berriztatze-premian aurkitzen gara lagunok. Nahiko esan eta entzun da argudioez. Erabili egin behar dira euskalkiak, landu eta irakatsi. Predikuetarako sasoiak, ordea, joanak dira, tresneriaren, bitartekoen aroan sartu gara.

Dena dela, azken urteotan garrantzitsuena bizkaieraren lurretako euskal pizkunde da, pizkunde poztarra.

3

Debarroa

Juan Martin Elexpuru

ARRATSALDEON:

Ez diet gure moderatzaile Andres Urrutiak proposaturiko gaiei zuzenean erantzungo, izan ere lehenaz, euskalkiak eta batua gaiaz, ez nuke herenegun Koldo Zuazok esandakoaren laburpen txar bat egiten besterik jakingo. Zeharo bat nator haren hitzaldiaren mamiarekin. Eta iruditzen zait asteleheneko beste hitzaldietan ere zentzuzko gauza asko esan zela. Euskaltzaindiaren Araugintza, berriz, gai zabalegia zait, eta proposamen txiki baina lotsagabe xamar bat egitera mugatuko naiz.

Euskalkian gaiaz, entzundakoak entzun ondoren, inpresio xume batzuk plazaratu nahi nituzke bakarrik:

Inpresioa dut gure artean ez direla gehiegi euskalkia bildu, landu eta errejistro jasoetan erabiltzea bere lehentasunen artean dutenak. Euskaltzain osoen artean, adibidez, ausartuko nintzateke esaten, hogeita lautik lau edo bost izango direla, asko jota, gaiarekin oso kezkatuta daudenak. Besteek bere lehentasunen zerrendan, erdi aldean, behean edo aldamenean dutela begitantzen zait. Hau ez dut ez txartzat ez ontzat jotzen. Errealitatea da. Bakoitzak eskubide osoa du bere kutuntasunak aukeratzeko. Euskarak mila sutegi du, eta bakoitzak ikusi behar du zein su indarrez hauspotu eta zein ez.

Euskaltzain ez garenon artean ere, inpresioa dut gauza berdintsua gertatzen dela: ez gara gehiegi gaia bihotzez sentitzen dugunak. Dena dela, Mendebaldeko euskalkiaren esparruan dezente gara, eta nahiko saiatu eta gogaikarriak, gainera. Nafarroa Garaian, batez ere Bidasoa arroan eta Sakanan, bada kezka hori duen jende adoretsua franko; Zuberoan ere bai: hango jardun ia guztia zubereraz bideratzen da. Erdialdeko euskalkian eta Lapurdi-Behenafarroan, ostera, inpresioa dut kezka hau ez dagoela oso zabaldua.

Inpresioa dut, bestalde, euskalkia bildu, landu eta errejistro jasoetan erabili nahi dugunon arteko adostasun maila handia dela. Denok osagarritzat ikusten dugu batua eta euskalkia, denok Euskaltzaindiaren arauak jarraitzen ditugu ortografian; eta deklinabidea eta aditza ondo finkatzearen aldekoak gara, batzuek euskalki osoaren eta beste batzuek berbeta-eskualdearen apustua egiten badugu ere; berbak osorik idazten ditugu denok; maileguen ganean irizpide berberak ditugu, eta abar eta abar.

Egia da Mendebalde Taldeko, eta oro har Bizkaiko euskalkizaleek, bizkaiera bakarraren alde jotzen dutela aditzean eta abar, eta fonetismorik gabe idazten dutela;

eta Badihardugukook , eta oro har Deba Arrokoak, berriz, aditza berbeta-eskualdeka finkatu nahi dugula eta zenbait fonetismo idaztea hobetsi dugula, fonetismo barik idaztea ere ontzat emanda.

Baina honek ez gaitu elkarrekin zapuztu behar. Indarrak batu egin behar ditugu, eztabaida antzuetan elkar aspertu barik. Denok dugu halako joera, neugandik hasita, arkakuxua hartz bihurtzeko, Urtubiko Andereak aspaldi batean esaten zuen bezala.

Jar dezagun adibide bat. Oñatiko *Kontzejupetik* aldizkarian esaldi hau ager daiteke, esate baterako: *Amandriak loiba txikixari kantaitten xao*. Bizkaiera batuan: *Amandreak loba txikiari kantatzen (edo kantetan) deutso*. Zergatik hobesten dugun lehenengo testua? Atzetik hasiko gara: *kantaitten* esaten da Oñatin, eta oñatiarren identifikazio ikurra da gainera *kantaitten* hori. *Xao* da laguntzailea, *dio* batuan. *Deutso* oso arrotz ikusten da herri horretan. *Dio* hurbilago dute bai soinu eta bai geografiaz. (Legazpin, km gutxira, hala esaten da).

Gainera gogoan izan dezagun *Kontzejupetik* aldizkaria barne kontsumokoa dela, Oñatin irakurtzen dela, eta ale batzuk agian Bergaran edo Arrasaten, eta herri horietakoak ere gustura irakurtzen ditugula Oñatiko euskera onean idatzitako testuak. Azken batean, *Amandriak loiba txikixari kantaitten xao* entzuteak edo irakurtzeak ez diola inori kalterik egiten, eta bai askoren begiak eta belarriak gozaten.

Eta orain geure buruari begiratuz, pentsatzen dut Badihardugukoak ere apaltasunez eta begirunez jokatu behar dugula. Bizkaian gehiengoaren sentiberatasuna eta jarduna bizkaiera batuaren aldekoa bada, dirudien bezala, errespetatu eta ontzat eman behar dugu.

Eta guztiaren gainetik, elkarrekin berba egin behar dugu gaiaren gainean, eta ez Mendebaldekoak bakarrik. Euskal Herri osokoak. Nik uste dut horretarako biltzar txo bat egitea litzatekeela egokiena gai honekin sentibera garenon artean, euskalkia bildu, landu eta erabiltzen dugunon artean. Eta Jagon Sailak izan beharko lukeela biltzar horren antolatzailea.

Eta gaia sentitzen eta maitatzen dugunak, bildu beharko genukeela, sentitzen eta maitatzen esan dut, uste baitut alderdi afektiboak ere pisu handia duela gorabehera honetan.

Eta gaia mesfidantzaz begiratzen dutenek ez liguketela oztoporik jarri behar, aski frogatua baitugu jende txintxo eta gizalegekoa gara.

Hurrengo puntura pasatuz, *Euskaltzaindiaren araugintza*, badakit orain proposatuko dudana hauspokeria irudituko zaiola zenbaiti. Baina nire aspaldiko burubide bat da, eta azaldu egingo dut.

Testu literario bat idazterakoan, eta batez ere elkarriketetan, ken *iezadazu*, esan *diezaiola* edo *zeniezaioke* ipini behar dudanean, zaila egiten zait laguntzaile horiek idaztea; ahoskagaitzak, soinu arrarokoak, estetikoki zatarrak begitantzen zaizkit, eta ebitatu egiten ditut zela edo hala. Beste batzuei ere gertatzen zaielakoan nago. Eta bururatzen zait bizkaierazko laguntzailea, *egin*, alegia, askoz ere dotoreagoa dela. Ken *egidazu*, esan *dagiola*, etab. Atrebentzia handiegia ote litzateke Gramatika Batzordeari gaia aztertzea eskatzea? Ez dut proposatzen *iezaiozu*, *diezaioket* eta familia osoa atzerriratzea, ez, jaungoikoak aparta! Proposatzen dudana da, hala derizkionak, *egidazu*, *egiozu*, *dagiola* edo *negioke* erabiltzeko baimena izan dezala.

Besterik ez. Eskerrik asko.

4

Gipuzkoa

Joxe Ramon Zubimendi

Eskerrik asko Jagon sailburu dugun Andres Urrutiari ni horrela goraipatzeagatik, eta arratsalde on entzule guztioi.

Aldez aurretik jarritako gidoia jarraitu ordez, neuk esan nahi ditudan hainbat kontu esango ditut, gidoia alde batera utzita. Izan ere, errezeloa daukat (eta orain arte entzundakoekin horrelaxe gertatu da) hainbat gauza esan gabe geratuko ote diren. Eta nik esan egin nahi ditut horietako batzuk. Ez gipuzkoarren izenean, ni ez bainator inoren ordezkari; baizik beste ikuspegitxo bat azaldu nahirik eta, beharbada, seguruenik, zuek lehendik ere badakizkizuen ohar batzuk edo jakingarri batzuk adierazi nahirik.

Aspalditik nauze euskalkietako ahozketasuna berreskuratu eta indartzearen aldekoa, baina ez galdetu niri nola egin behar den zehazki lan hori. Ez galdetu niri irakaskuntzan zer-nolako mailaketa egin behar den, zer adinetan, zer lekutan, non bai eta non ez den sartu behar bizkaiera, gipuzkera, nafarrera edo dena delakoa. Ez galdetu niri... nik ez baitakit. Ez galdetu niri komunikabideetan, herrian herriko aldizkarietan, irrati txikietan eta abarretan, zer, nola, noiz, non edota zenbat sartu behar den bertako euskara, herrian herrikoa edo eskualdekoa; nik ez baitakit.

Nik badakit, ordea, Euskaltzaindian, Jagon sailean, badugula lantalde bat, *Euskalkien lantaldea* izenekoa, hain zuzen ere, horiek guztiak (eta besterik ere) aztertzeko, eztabaidatzeko, aurrera bidean jartzeko... Euskaltzaindian badugula gogo-eta elkarrekin egiteko sortutako taldea. Talde horretan baditugu eskualde gehienetako ordezkariak, bai Ipar, bai Hego Euskal Herriko eskualdeetakoak. Egia da bakarren batzuk falta zaizkigula; baina ez gonbita faltaz: izan ere, hainbat jenderi deitu izan diogu, eta ezin zutelako edo nahi ez zutelako edo dena delakoagatik, ez zaizkigu etorri. Jakizue, beraz, etorri nahi duenarentzat (hartarako gai izanik) atek zabalik daukela eta ongi hartua izango dela.

Beraz, soziologiaren ikuspegitik edo soziolinguistikaren ikuspegitik edo, hor zer eta nola egin behar den ez dut nik esango. Lantalde horrek, Jagon saileko *Euskalkien lantaldeak*, hor hitz egingo du, aztertuko du eta, halako adostasunik lortu eta onduz gero, Euskaltzaindiari proposamenen bat egingo dio. Zer-nolako proposamena egingo dion ez dakit, baina lantalde horrek zerbait proposatuko dio Euskaltzaindiari: alegia, esango dio zer-nola jokatu beharko lukeen Euskaltzaindiak lantalde horren iritziz. Kontuz, gero! Ez halako pertsona edo beste halako urlia edo sandiaren iritziz, baizik eta lantalde osoaren iritziz.

Esan bezala, lantalde horretan bildurik dira eskualde gehienetako ordezkariak (eta iritzi desberdinetakoak ere bai). Beraz, nire ustez, euskaltzale jakin batek (edo bik edo hiruk) Euskaltzaindiari proposamena egitea baino askoz ere aberatsagoa da gisa horretako lantaldeak proposamen zehatz bat egitea Euskaltzaindiari.

Gero Euskaltzaindiak zer erabakiko duen, hori beste konturik da, hori gerora ikusiko da. Lehenik ikusi behar da ea lantaldea bera iristen ote den proposamen bakar bat egitera: denentzako balio duen edo balio dezakeen proposamen “batua” egitera. Hori ikuskizun dago. Baina dagoeneko *Euskalkien lantaldea* lanean ari da. Bere denbora beharko du, noski, lanak egiteko; baina “Arian-arian, zuloa harrian”.

Bestetik, esan nahi nuen (eta ez nuke inola ere nahi zuek kontu hau bazterrean ahaztuta uzterik) Euskaltzaindiari egotzen zaiola, batasuna dela eta, hainbat aldiz eta hainbat plazatan, euskalkiak alde batera utzi izana. Salaketa gogorra!

Nik, gogoangarri, aipamen batzuk egingo dizkizuet: Euskaltzaindiaren azken urteotako lanen aipamen batzuk egingo dizkizuet, egin nahi dizkizuet, ikus dezazuen eta epaitu, iritzi hori zuzena ote den ala okerra ote den.

Euskalkiei dagokienean, Iker Saileko lan erraldoiak aipatu nahi ditut lehenda-bizi. Batetik, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak*. Lan horrek euskalkiekin duen zerikusia nabarmen-nabarmena da, begi bistakoa da, eta “Bistan dagoenak ez du ispi-lurik behar”. Bigarren lan erraldoia, bigarrena edo beste bat, *Orotariko Euskal Hiztegia*. Eta nork ukatuko du *Orotariko Euskal Hiztegiak* zerikusi zuzena eta bete-beteko duela euskalkiekin? Bi horiez gainera, *Euskal Herriko Hizkuntza Atlas*a, ohiko euskal mintzamoldeak biltzen dituena. Eta mintzamolde horiek euskalkietakoa ez badira, esango didazue, zer, nongo, nolako, noizko eta nondikako mintzamoldeak diren. Eta zer esan Onomastika batzordeak ari duen lan itzelaz? Hartu, esate baterako, Toponimia alorreko zerrendak: azken urteotan, milaka eta milaka leku-izen aztertu dira banan-banan; baita erabaki sendo askoak hartu ere! Bestalde, ez ahaztu Euskaltzaindia argitaratzen ari den Pedro de Irizarren liburu-mordoska, euskalki guztietako aditz-paradigmak jasotzen dituena.

Gehiago nahi baduzue, Euskaltzaindiko Herri Literatura batzordeak joandako zortzi urteotan egin dituen lau jardunaldien izenburuak gogoraziko dizkizuet: joan den abenduan, 2000. urtean, Bilbon, *Euskal Fraseologia* izan zen jardunaldiaren gaia (Mokoroaren omenez, hain zuzen ere: euskal lokuzioak edo esapideak bilduz lan izugarri handia egin zuen Mokoroaren omenez); 1998an, Tolosan, *Herri Antzerkia* izan zen gaia (Antonio Maria Labaienaren omenez); 1996an, Durangon, *Paremiologia* izan zen gaia, alegia, esaera zaharrak, atsotitzak eta abar aztertu, bildu eta azaltzeko antolatutako jardunaldia; 1994an, Oiartzunen, *Ahozkotasuna* izan zen gaia (Manuel Lekuonaren omenez). Beraz, Herri Literatura batzordea ere, beste batzorde batzuk bezalaxe, euskalkiekin zer ikusi zuzen-zuzena eta bete-betea duen ikerketa egiten eta plazaratzen ari da.

Iker sailetik *Jagon* sailera, bertako idazkaria naiz eta. Lehen ere esan dizuet *Euskalkien lantaldea* hor ari dela egitasmo bakar bat edo irizpide bakar bat edo bateratu bat prestatu nahian Euskaltzaindiari proposamen orokor bat egiteko. Bestetik, *Komunikabideen lantaldea* ere Jagon sailekoa dugu, eta komunikabideen lantalde horretan ez daude EITB eta *Euskaldunon Egunkaria* bakarrik; izan ere, hortxe baitute beren lekua Topaguneko herri aldizkarien ordezkariak ere, herri aldizkariak eta irrati txikiak bidea eta kezka agertzeko lekua. Eta kezka horien artean, bistan da, euskalkien erabilerari dagokion kezka ez da txikienetakoa.

Azkenik, besterik ez aipatzeko, aurten bertan sortua du Euskaltzaindiak *Internet* bidezko JAGONET kontsulta zerbitzua, eta hortxe ari da lanean, euskararen kalitatea jagon beharrez. Beraz, euskalkien gaia aipatzen denean, ez ahaztu Euskaltzaindiaren lan horiek denak eta lan horien emaitza mardulak. Ez ahaztu.

Euskalkien alorrean erabakiak hartzea zaila da. Besteak beste, jakin egin behar baita. Hasteko, jakin, eta gero, norberak dakiena besteekin batera plazara atera, eta aldeko eta kontrako iritziak agertu. Eta denon artean zerbait egitea, ahalik eta erarik egokienean egitea, posible ote den aztertu behar da.

Sentimenduak sentimendu, denok baditugu sentimenduak, eta sentimenduak onak dira. Euskalkien auzian, sentimenduak pil-pilean daude hainbat bihotzetan, eta hori ona da: nire iritziz behintzat, oso ona da; baina itsumenik gabe. Mesedez, itsutu gabe.

Ikerketa egiten segi behar dugu, lanean segi behar dugu, elkarrekin bilduz *Euskalkien lantaldean*, eta aurrera bideak elkarrekin aztertuz. Aurrera begira nondik, nola eta nora egin behar dugun aztertzen segi behar dugu, beraz. Auzi honetan, zuzentasuna, egokitasuna eta beharra, hirurak elkarren eskutik ibili beharrean ikusten ditut, zorionez. Hauxe da, hortaz, nire epaia, inork entzun nahi balu ere: dabilzala uztarri berean euskara batua eta euskalkiak; elkarren osagarri baitira, eta ez elkarren etsai. Jakin bezate, gainera, elkarren premia dutela bizirik irauteko, eta bataren heriotzak besteen hondamendia ekarriko lukeela. Azkenik, epai hau betearaziko duen ardura-dun prestua ere izendatuko dut: beharra. “Beharra, eragile on.”

Ikusten duzueenez, nik erabat beste aldetik heldu diot gaurko gaiari; baina ez nabil etxekalte, ez Euskaltzaindian eta ez euskalgintzan. Baneukan gogoan esan ditudanak jende aurrean berriro esateko; egia horiek ere esan beharra eta gogorarazi beharra baitago; sarri ahaztu egiten baitzaigu egiten ari garen lana hor dagoela, eta gaurko lanak biharko lana dakarrela, eta gaurko ezagutzak biharko ezagutza dakarkigula. Jarrera ere landu behar da, jakina, eta sentimenduak ere bizi egin behar dira; baina beste alderdi horiek ere bai. Eta dena gizalegez.

Orain isildu nadin, luzatzeko arriskua daukat eta.

Eskerrik asko entzule guztioi.

5

Nafarroa

Paskual Rekalde

SARRERA

Ez da hau lehen aldia Euskaltzaindiak *Lekuko euskarak eta euskara batua* gaia landu duena. Aldian-aldian gai honen inguruko erabakiak eta adierazpenak plazaratu ditu. Ildo horri jarraikiz, eskertzekoa da, zinez, Biltzar honetan ere hainbaten eta hainbaten kezka-iturri den gaiari lekutxo bat egin izana.

Hainbat iritzi, uste, kezka... agertuko dut hemen, ikusitakoaren eta ikasitakoaren laburpen soil. Betiere, nire parte-hartzeari dagokionez, Nafarroa azter-eremu hartuta. Nolanahi ere, erran dezadan ondoko hitzak ez direla nahitaez nafar guztienak, afera korapilotsu honen gaineko iritziak eta pentsalmoldeak bat baino gehiago baitira geurean.

Gezurretan arituko nintzateke erranen banu Nafarroan ez dela euskalkien gaineko kezkarik izan. Izan da eta, gaur egun ere, bada. Nolanahi ere, nafar euskaldunok ditugun kezken arteko bat da, Nafarroan euskaldun konprometitu izan eta bizitzeko zailtasunak gaitzak baitira, are gehiago, egun, Nafarroako Gobernuaren erasoaren aitzinean.

Euskarari buruzko Foru Legeak ezartzen du nafar euskalkiak zaindu eta errespetatu behar direla¹. Zinez, hitz ederrak dira, baina errealtateak bertzerik erakutsi eta erakusten digu. Gobernuan boterean dagoen alderdi politikoak (UPNk) eta *Diario de Navarra* behin eta berriz erran dute ez dutela euskara baturik nahi Nafarroan, haien ustez «un vasco impuesto desde fuera, un arma más del nacionalismo vasco destinada a apropiarse de Navarra» delakoz, ez Nafarroako euskara «vascunee de aquí». Alabaina, hemengo euskalkiak bultzatzeko benetako ekimenik ere ez dute egin. Euskarari (batuari) kultura balioa ukatu nahi izan diote, baina errealtateari so egiten badiogu, konturatuko gara euskara batua normaltasun osoz sartu dela administrazioan eta hezkuntzan.

1 Abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen 1. artikuluko 3. puntuak, hitzez hitz, honela dio: "Nafarroako euskalkiek errespetu eta babes berezia izanzen dute". Nafarroako Gobernuari eginkizun zehatza ematen dio Xedapen Gehigarri bakarrean: "Nafarroako Gobernuak, "Vianako Printzea Erakundea" Kultur Zerbitzuaren bidez, Foru Lege honen 1.3 artikuluan ezarritakoa betearazteko behar diren jarduerak aurrera eramanez ditu".

EUSKARA BATUAREN IBILBIDEA NAFARROAN (EUSKARA BATUA-TOKIKO EUSKALKIAK).

Euskara batuak Nafarroan zer ibilbide egin duen agertu aitzinetik, uste dut komeni dela Nafarroako euskal hizkeren gainean oinarritzko argitasunen bat ematea. Erran behar da nafarrera ez dela bakarra, ez dela «*erran, bertze, aitzin*» bakarrik, «*esan, beste, aurre*» ere nafarrera direla².

Euskara batua pixkanaka-pixkanaka ezartzen joan da Nafarroako irakaskuntzan eta administrazioan. Baita horren produkzio osoa ere, hala nola, liburuak, telebista, aldizkariak, egunkariak... Baliabideen urritasunak, administrazioen axolagabekeriak, bazterketak eta hizkuntza kontzientziazioaren maila txikiak ez dute ahalbidetu ekimen propio garrantzitsurik. Nolanahi ere, ezin bazter utzi euskararen (euskalkien) eta euskal kulturaren aldeko herri-mugimenduak (aldizkariak, telebistak, irratiak...) eta eskolak (herri-eskolak eta ikastolak), horiexek mantendu baitute, hein batean bederen, euskararen sua Nafarroan. Den-denetan uztartu dira euskara batua eta euskalkiak. Hala ere, euskalkiek presentzia handiagoa izan dute ahozko komunikabideetan, idatzietan baino (erraten ahal da Sakana aldean banatzen den *Guaixe* aldizkaria dela euskalkia idatzira eraman duen bakarretakoa).

Euskarari buruzko Lege murriztaileak (Nafarroa hiru hizkuntza eremutan banatzen du) behaztopa anitz paratu dio euskararen garapen normalizatuari. Horri gehitu beharko genioke euskararen arloan euskal eremuko hainbat udalek izan duten axolagabezia eta utzikeria eta, nola ez, *Diario de Navarra*, aldian-aldian, euskara batuaren kontra argitaratzen diren iritzi-artikuluak edo egunkari horretako *Nafar Izkuntza* gehigarrian Euskaltzaindiaren eta euskara batuaren kontra agertu diren idazkiak.

Euskalkien inguruko hainbat motatako lanak egin dira Nafarroan, bertzeak bertze, dialektologia tesiak, hiztegiak, lan-monografikoak... Poliki-poliki ezagutzen ari gara hobeki Nafarroako euskara. Baina, nola islatu da hori gizartean? Beharbada huts egin da lan horiek gizarteratzen; beharbada ez dugu jakin irakaskuntzan, oro har, xertatzen.

Eskualdeka egin da lan, nor bere txokoan arituz. Hala ere, uste dut, ez dugula jakin "nafar mugimendu bateraturik" sortzen, ez Euskal Autonomia Erkidegoan egiten denari kontra egiteko, baizik eta gure euskalkien ekarpen aberatsa zein den jakin eta euskara batuan txertatzeko. Bi eredu nagusi (*esan / erran*) izateak ere, beharbada, ez du sobera lagundu. Baina, aitzakiak aitzaki, uste dut, kanpotik etortzen ahal den laguntza ukatu gabe, guk gerok egin beharreko lana dela.

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIEN ARTEKO UZTARDURA

Ez dut deus berririk asmatuko erraten badut, eskuarki, euskara batua erdialdeko euskalkian oinarritu dela. Eta erdialdeko euskalki hori mintzo da egun Nafarroako

2 Mendebaletik ekialderako bideari jarraitzen bagatzaizkio, lau euskalki mintzo direla ikusiko dugu:

- (a) *Erdialdeko euskalkia*, Larraun, Araitz, Imotz eta Basaburuan (nafarreraren ezaugarriekin).
- (b) *Nafarrera*: Burundan (mendebaleko eta erdialdeko euskalkien ezaugarriekin); Malerrekan, Ultzaman eta Atetzen; Baztanen eta Erroibarren (nafar-lapurteraren ezaugarriekin); Sakanan (erdialdeko euskalkiaren ezaugarriekin); Bortzerrietan (nafar-lapurteraren eta erdialdeko euskalkiaren ezaugarriekin); Aezkoan (nafar-lapurteraren eta ekialdeko nafarreraren ezaugarriekin).
- (c) *Ekialdeko nafarrera* Zaraitzun (nafar-lapurteraren eta zubereraren ezaugarriekin).
- (d) *Nafar-lapurtera*, Urdazubi eta Zugarramurdin, eta Luzaiden.

mendebaleko eremu euskaldun zabalean. Hori hala izanik, bistan da erdialdeko euskalkiarekin muga egiten duten nafar hizkerek ez dutela arazo handiegirik izan batua-
ren eta euskalkien arteko uztardura egiteko. Baina, mendebaletik ekialdera joz gero, zer? Programa, liburu, aldizkari, irrati, telebista... arrotzen mezuak zeuden-zeudene-
an hartu eta onartu behar izan dira, baina, aldi berean, ez da produkzio propiorik izan.

Bertzalde, erran behar da hizkuntza arau estu eta zurrun samarra erabili dela eskoletan, administrazioan eta euskaltegietan. Ez dira, gehienetan, kontuan izan tokian tokiko hizkeren ezaugarriak. Arrazoiak edo zergatiak bat baino gehiago: kanpotik etorritako edo tokian tokiko irakasle batzuen ezjakintasuna³; irakaskuntza publikoko irakasleen mugikortasuna⁴; nafarreraz idatzitako liburu gutxi izatea; hezkuntza administrazioak deus guti egitea⁵...

Berdintsu irakatsi da Tuterako euskaltegi batean, Iruñeko ikastola batean edo Larraintzarko eskola publikoan. Baina, erru osoa ez da maisu-maistrena edo irakasle-
ena; beharbada, beren ikasketetan ez da behar bezala landu gai hau edo alde batera utzi da. Euskararen arloan lanean ari diren irakasleek, euskara teknikariek edo itzul-
tzaileek euskara batuaren eta tokiko hizkeren gaineko ezaugarri nagusiak zein diren jakin beharko lituzkete, zein tokitan irakatsi edo lan egin, hangoak segurik bai⁶.

Ezbairik ez dut, bertzalde, euskara bizi, aberats eta erakargarria egin nahi badugu, euskalkiak (eta haien ekarpena) behar-beharrezkoak ditugula. Haur batek ez luke eskolan inolako arazorik izan behar etxean ikasi duen euskararekin, irakasleak eginahalak egin beharko bailituzke etxeko edo eskualdeko euskararen eta eskolako eta ikasliburuetakoko euskararen arteko zubi-lana egiten. Eta gaitzerdi eskolako hizkera zuzena bada! Zer egiten dugu ikasleak matematikako edo fisikako problemen ebazpena euskaraz egiteko gai izan eta, eskolako edo liburuetakoa ez den bertze mintzo batean ari den norbaitekin bi minutuko elkarriketa xume bat izateko gai ez badira? Zerbaitek huts egiten du hor.

Eta, etorkizunean zer? Ez dut inolako zalantzarik. Euskara batua indartzen eta sendotzen segitu behar dugu, baina ez nolanhiko euskara batua. Euskalkien ekarria gehitu beharko diogu (nork bere hizkeratik abiatuta), euskara aberats, bizi eta gozagarria egiteko. Baina hemen ere eginahalak bi norabide izanen ditu:

(a) Euskara mintzo den tokietan, euskalkia zaindu eta sustatu behar da, baita eskoletan, euskaltegietan eta udal administrazioan ere. Eskolako lehen urteetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan behinik behin, euskalkiak toki handiagoa hartu behar luke, betiere hori izanen baita etxeko euskararen eta euskara batuaren arteko uztardura egiteko biderik emankorrena.

Badugu, halaber, errazegi bazter utzi ohi dugun eremua, aisiarena, alegia. Euskalkian aritzeko eremu ezin hobea da, eskolako hizkera zurruna utzi eta nork bere

3 Berriki arte arrunta izan da Baztan aldeko herri-eskoletan irakasleak ikasleari etxeko euskara zuzentzea, konparazio baterako, haurrak "lauretan hoge" erran, eta irakasleak honako hau erantzutea: "ez da lauretan hoge esan behar, *laurogei* baizik". Edo hainbat ikastolatan nafarreraren ezaugarriak behinenak ere ez irakastea.

4 Ez da harritzekoa urte batean Azpilkuetan, heldu den urtean Garesen eta ondokoan Iruñean aritzea irakasten.

5 Hezkuntza eta Kultura Departamentuko Euskara Zerbitzuak euskalkien inguruko ikastaro pare bat eskaini ohi die irakasleei urtero. Gehienbatean, kanpotik etorri den irakasleari begira prestatutakoak dira, euskalki baten edo bertzearen oinarri-oinarriko ezaugarriak zein diren jakiteko. Ez da euskalki edo herri-hizkeren jakintzan sakontzeko ikastarorik eskaini, ez irakasle, ez ikasleei ere.

6 Ez litzateke erdiespen txikia izanen denok geureganatuko bagenu, errate baterako, erdialdeko euskalkiaz gain, bi albotan ere badirela bertze euskalki batzuk, eta haietan mintzo direnei errespetu osoa izan behar zaiela.

sentimenduak, usteak, komunikatzeko nahiak agertzeko, azken batean, euskara bizia egiteko.

(b) Euskararik mintzo ez den tokietan, abiapuntua euskara batua izanen da (eta, egun ere, hala da). Hala ere, uste dut euskalduntze prozesuan garrantzi handiagoa eman beharko litzaiokeela familia euskaldunetan egonaldiak egiteari, Ingalaterrara ingelesa hobetzeraz joaten den bezalaxe. Dena dela, bi azpimultzo eginen nituzke hemen:

(b.1) ez aspaldi euskaraz mintzo ziren eskualdeen egoera (Erronkari, Zaraitzu...), zeinetan euskara batuan irakasteaz gain, eskualde horietako euskara galduaren ezaugarri nagusiak ere gehitu beharko bailirateke, eta

(b.2) euskara aspaldi galdua duten edo, guk dakigula behinik behin, euskara inoiz mintzatu ez den eremuen egoera, zeinetan euskara batuan irakatsi behar baita. Ahal izanez gero, herrialdeko euskararen ezaugarri nagusiak ere pixkana-pixkanaka ikasi beharko lirateke.

Nolanahi ere, oraino lan gaitza dugu egiteko, batez ere euskara batua eta euskalkiak zer diren errateko jendeari. Irakaskuntzan, herri-komunikabideetan edo administrazioan lanean ari direnek, oro har, ez dute garbi gai hau. Batzuek euskalkiak eta batua bi multzo isolatu eta aldaezintzat dituzte; berteze batzuk, aldiz, batuaren kontra egon gabe euskalkien alde ere badaude, baina ez dakite nola landu gaia...

EUSKARA BATUAREN ETA EUSKALKIAREN ARTEKO UZTARDURA EUSKALTZAINDIAREN ARAUGINTZAN.

Goian aipatu dugu erdialdeko euskalkitik abiatu zela euskara batua egiteko. Ibiliaren ibiliak argi samar utzi du, nire ustez bederen, erabaki hura zuzena izan zela. Kontua da bazterretako euskalkiek ez dutela leku duinik aurkitu hainbat arlotan⁷.

Ez du lan erraza Euskaltzaindiak euskaldun guztien gustuko diren arauak ematea. Eskuarki, erabaki zuzenak hartu ditu, eta oinarritzkoaren eta txokokeriaren artean bereizketa egin du. Ez dezagun atzendu nafarrera bi euskalki hedatuen artean gelditzen dela (*erdialdeko euskalkia* eta *nafar lapurtera*).

Nolanahi ere, ezin hemen aipatu gabe utzi *Hiztegi Batua*. *Hiztegi Batuan* hitz anitzen ondoan zein euskalkitakoak edo eremutakoak diren ageri da⁸. Erabaki horrek aldeko eta kontrako iritziak sortu ditu. Batzuek diote euskalkiaren marka jarritz gero, oro har, hitz hori bazter gelditzen dela liburuetatik, egunkarietatik edo telebistatik, jendeak uste duelako hitz hori euskalki batekoa dela eta ez euskara batukoa; berteze

7 Urteak iragan ahala, iduri du bukatu direla argialetxe eta aldizkari batzuek "erran eta berteze" erako idazkiei lehenago paratu ohi zieten betoa, edo nafar-lapurtera aldera jotzen duten nafarren euskarari zenbaiteke, hainbat nafar artean, egiten zizkieten isekak. Zerbait aldatzen ari den seinale.

8 Hala ageri da *Hiztegi Batuan* (*Euskera*, 45 (2000-2), 482): "Hainbat hitzen formaren ondoan *Bizk.*, *Ipar.* eta *Naf.*, *Gip.*... ikurak eman ditugu. Euskalki markaren bat azaltzen duten hitz horiei buruz esan behar da ez dela inondik ere Euskaltzaindiaren asmoa, marka horiek eranstea, horrelako hitzak bazterteza; aitzitik, euskalki hitzok *Hiztegi Batuan* sartzek adierazten du Euskaltzaindiak bultzatu egin nahi dituela idazleak hitz horiek erabiltzera —jakinaren gainean eta nori bere senak agintzen dion eran, jakina— horrela euskaldun guztien ondare komuna bihurtuz joan daitezen".

9 Arras baztertu behar genituzke, nire ustez behinik behin, nork bere hizkerakoak ez dituen hitzak eta esamoldeak hartu eta norberarenei egokitzeko egiten diren ahaleginak, baldin eta lehenak norberarenean errateko berteze biderik dagoe-nean: *bertan behera utzi* hartu eta *alde batera utzi* esan beharrean, *bertan beheiti utzi* hibridoa sortu; *irratari esataria* hartu eta *eleketari* esan beharrean, *erritari* erabili edo *butano bonbonaren gorakada* erabili nahi izan eta, ez bat ez bi, *butano bonbonaren goitkada* harribitxia sortu, *butano bonbonaren prezioa goititza* edo antzeko esaldi bat erabiltzen ahal denean.

batzuek, aldiz, uste dute erabaki hori zuzena dela, beharrik gabe euskalki bateko zein bertzeko hitzak edo esaldiak ez nahasteko aukera ematen duelako⁹. Geroak erranen du erabaki hori zuzena izan den edo ez. Hiztegi Batua bera nola landu eta erabili behar den ere ez du argi batek baino gehiagok; hor dugu, adibidez, "h." [= hobe] ikurra dararmaten hitzekin praktikan gertatzen ari dena: "h."-dunak hobetsi eta gainerakoak gaitzetsi¹⁰.

Hondar Hitz

Ezbairik ez dut. Bide laburra egin du geurean gai honek, bertze eskualde batzuetan egin duena baino anitzez ere laburragoa. Hortaz, eginahalak eta bi egin beharko ditugu esku artean dugun gai garrantzitsu bezain minberari (euskalkien gaiak aldekoak eta kontrakoak ditu geurean, bertzeetan bezala) erantzun zentzuduna eta landua emateko. Horretan asmatzen badugu, uste dut euskararen onerako izanen dela Nafarroan.

Halabiz!

¹⁰ Hala dio *Hiztegi Batuan* (*Euskera*, 45 (2000-2), 482): "Beste hitz mota batek ere argibide berezia behar du: "h." [= hobe] ikurra erantsi zaienak, hain zuzen. Horietan ere bi multzo bereizten ditugu. Lehen multzoa euskalki marka dararmaten hitzek osatzen dute. Horrelakoetan "hobe" hori Euskal Herri osoari begira idazten diren testuetako erabilerari soilik dagokio, eta hitz edo aldaera horiek egokiak dirateke beste kasu batzuetan, *Herria* astekarian, *Bizkaia* gehigarrian edo herri aldizkarietan idazterakoan, adibidez. Bigarren multzoa bestelakoei —hots, "zigarro" [...] 2 *Heg.* 'zigarro txikia' h. **zigarreta**" edo "**partidu** Heg. 1 h **partida** [...]"] bezalakoei — dagokie. Hauei buruz Euskaltzaindiak esan nahi du ohartzen dela ez direla denak idazle guztiek egoera guztietan eta berehala onartzekoak, eta agian bide zuhurrena pausokakoa dela, testu jaso eta formalenetatik hasiz, eta bigarren urrats baterako utziz ahozko erabilerari lotue-nak. Hemen ere, senak eta egoerak erakutsiko dio idazle edo esatari bakoitzari nola joka arauok betetzeko erantzukizunean."

6

Iparraldea

Txomin Peillen

Zuberoan zer egiten den eta zer ez den egiten kontatu behar dizuet, laburki ahalaz; baina ohar txiki bat aitzinetik egin behar nuen eta hau da: bizkaitar bat bisitaz jiten bada Zuberoara eta bizkaieraz mintzatzen hasten bada, euskaldunek ez diote deusik konprenituko, ez hitz bat ere. Orduan, hau ikusten baitut nola egiten den Santa Grazin, euskara batuan mintzatzen badira, dexente konprenitzen die. Nahiz eta lekuan lekuko euskalkian mintza daiteken, uste dut ez dela euskara batua bakarrik idatzian erabili behar, zure euskalkitik kanpo zaudenean ere hitzeging behar dela. Gogoratzen naiz ipar-manex bat nola Bizkaian bere azpieuskalkian hitzegiten alferretan amorratzen zen.

Ez dakit zuberotar euskara denez edo beste mintzaira bat. Batzuetan ez ditugu Iparraldeko hitzak erabiltzen, *bost*, *beste*, *ostegun*, *arrasti*, *amama* eta *aitata* eta *igarran* erraiten dugu eta beste orduz bai, *hitzeman*, *heltü*, *aitzina*, *gibel*. Hitzegitean gaztelaniazko azentu tonikoaren antzekoa darabilgu eta fonetikan, hitz askotan, denetan ez, “u”, *ü* bilakatu. Horiek ezin ditugu aldatu, baina azken urteotan mintzatuan atzera edo gibel eman badugu, aurrera egin dugu idatzian.

Duela 20 urte, 5 edo 6 grafia baziren. Batzuek, ahoskatzen zen bezala, frantses grafiarekin idazten zuten; beste batzuek ahoskatzen zen bezala idazten zuten, XX. mendeko euskal grafiarekin, beste batzuek ahoskatzen zen bezala; baina Euskaltzaindiaren grafiarekin; beste batzuek, XIX. mendeko grafiarekin, baina hitzak osorik emanaz eta azkenik, orain, nagusi dena, Euskaltzaindiaren grafia eta hitza osorik emanaz, hau da gehiengoa. Batek oraindik jarraitzen du lehenagoko grafiarekin, beste dotzenarekin grafia bat egin da.

Gramatikan zer pasatzen den?, Eman dezagun, Pedro Yrizarrek ez baitu zubereraren aditza eman, baina Bizkaikoan bezala da, herri batetik bestera aditz formak kanbiatzen dira. Azken urteotan aditz forma bat hautatu da, euskara batutik hurbilena eta hori ikastolan irakasten, hori erabiltzen da irratietan eta gramatikan zerbait indar egin da. Orain badugu gramatika bat, zubereraren gramatika, Junes Casenavek egina talde batekin, eta hor ibili da Jean-Louis Davant.

Hastapenetik, –zeren eta badu 25 urte badela ikastola Zuberoan–, andereñoek deitu gintuzten galdetzeko: nola idatzi behar dugu? zer egin behar dugu? nola irakatsi behar dugu? Testuak egin behar ziren. Zuberoan lehen eta orain zubereraz hitzegiten da ama eskolan, zubereraz irakasten dela lehen mailako lehen urteetan. Eman dezagun 8 urtetan pixka bat ikusten dela euskara batua zer den, 9 urtetan hobeki eta 10 urtetan, kolegioan erabiltzen baita euskara batuaren antzeko hizkuntza bat sakon-

tzen. Nik diot, kolegiotik hasiz “Iparraldeko euskara batua” erabiltzen dela. Progresio bat dago euskara batuarekin, Zuberoan arazo handirik sortzen ez duena, zeren eta herriko euskararekin ez baita moztu, zeren eta oraindik, batzuetan gurasoak, beste ba-tzuetan amamak eta aitatak mintzatzen baitira zubereraz. Nik diot lokarri hori ez dela moztu behar. Lan hori egin eta egiten baitu ikastolak eta irratiak ere bai, nahiz eta erabiltzen duten zuberotarra, sartzen dituzte euskara batutik hartu hitzak, iragar-kian eta nahi duzuna eta holako hitzak sartzen dira Zuberoako euskararen orain, eta erabiltzen, emeki-emeki, pixkanaka, euskalkia ito gabe, sartzen da euskara batua zubereran.

Gero, zailtasun bat du euskalkiak, aditz alokutiboa oso aberatsa duelako. Zukako alokutiboa badugu hitanokaz gainetik, eta zuek ez duzue problema hori. Markatu gabeko aditza bakarrik galderetan darabilgu. Orain zer gertatzen da, euskaraz ikasi gazteek holako plastikozko zuberera bat darabilte: zuka pixka bat erabil-tzen dute, hikakoa gutxi dakite eta nokakoa guttiago. Batzuek etxean ikas dezakete, zeren eta ahizpak daudenean, ahizpak beren etxean noka mintzatzen direla leku ba-tzuetan oraindik, baina gero, familia batean denak anaiak baldin badira, orduan noka ez dute entzuten eta neskekin ez dute erabiltzen eta eskolan ikastea oso zaila da.

Holako gauza txipi batzuk, baina eman dezagun, ez dut uste berez hain gaizki dagoenik gure euskalkia alde horretatik, ez du sufritzen euskara batuaren aldetik, sufritzen du frantsesaren aldetik. Zahar gehienek hitz egiten dute Zuberoan, behar-bada 50 urtez goitiko jende gehienek, baina handik behera %20ra iristen da eta umetan gutxiago %10, eta orduan badago problema.

Beste gauza bat ere badago, zuberotarrak baduela bere fonetika bereizia, azen-tu tonikoa badu espagnolaren antzekoa, gaztelaniaren antzekoa, gero badu fonetismo batzuk irakatsi behar direnak eta oraindik hasi ez direnak idazten: kontsonante aspiratuak erabiltzen dira, *ikhasi* eta *ikhusi*, *apheza* eta horrelakoak erabiltzen dira normal eta ez dira galdu horik. Gauza bat ari da sartzen zoritxarrez eta hori Iparralde guztian gertatzen da: frantses azentu mota bat. Nik erraiten dut frantsesa mintzatzen duten gaskoinetik sartu diguten azentu hori. Adinekoek *rr* doblea erabiltzen dute Zuberoan oraindik, baina pixkanaka itsasaldeetik heldu den manex-gaskoi “r” hori gazteek darabilte. Euskal bokalak ez dira itsasaldean bezainbeste desagertzen. Eta hortan, oraindik, andereñoek badakite euskara ona erabiltzen, zeren eta hasieran lehenik etxeko euskara irakatsi baitute, maisu eta maistrak ziren zuberotarra zekitenak, gisa batez edo bestez idazten zutenak eta azkenean, euskara batua ondotik sartu da eta geroztik ikasi dute eta diplomak erdietsi.

Eta momentuan pentsatzen dut Iparralde gehienean ez dagoela problemarik; euskalkiak erabiltzen direla ikastoletan, behar bada, Hendaian, Donibane-Lohizunen eta Baionan izan ezik denetan, gero, barnekaldean bai, batzuek irakasten dute, Behenafarroan behintzat, behenafarreraz eta, Zuberoan, zubereraz. Gero, arazoak sortzen orain, zeren eta umeak heldu baitira ikastoletara eta, gurasoek euskararik ez dakitenean, zer euskara erabili behar den Baionan, zer euskara mota Angelun, zeren eta guraso-umeak Euskal Herri osotik baitatoz.

Eta irakasleak nor diren, baxenafartarrak asko eta besteak Hegoaldekoak. Ikusten da Hegoaldekoak euskara batua irakasten du batzutan eta besteak, euskalkia. Zuberoan ez dago arazorik, denek zubereraz dakite. Arazoa ez da bakarrik euskalkia, Zuberoan ez dela umerik sortzen, herria zahartzen ari dela. Noizarte iraungo duen ezin esan!